
Erretratuak egiteko baino ez naiz bizi



ipuin-bilduma



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



Julene Azpeitia lehiaketa

Bilduma honetan dauden ipuinak Durangoko Julene Azpeitia lehiaketak sarituak dira.

Azala: Imanol Larrinaga



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Erretratuak egiteko baino ez naiz bizi

Ipuinak

AURKIBIDEA

Betierekotasunez	5
<i>Fernando Morillo Grande</i>	
Makaletik madarikaturako trantsizioa	14
<i>Aintzane Agirrebeña Ubera</i>	
Udagarriko arrastiri hartako urtegiatzea ortotsak lagun	25
<i>Vicente Gil de Paules Balda</i>	
Erretratuak egiteko baino ez naiz bizi	43
<i>Josu Unzueta</i>	
Hildakoaren solasak	52
<i>Luis Mari Mujika</i>	
Zergatik? Hargatik	60
<i>Julene Idoate Legorburu</i>	
Zazpi egun Martarik gabe	63
<i>Jon Aiastui</i>	

Betierekotasunez

Fernando Morillo Grande

Urteak ziren. Urte asko, neurgaitzak kasik. Baina guzti horrek merezi izan zuen, beharrik! Merezi izan zuen. Azkenik ere... lortzeko zorian zegoen oraintxe. Arnasa sakonki hartu, eta aurrera ekin zion. Dena ala ezerrez, iritzi zion. Gerta ala gerta. Gehiegi zuen jokoan zalantza ziztrinekin hasteko. Dena, erabaki zuen, dena izan behar zen. Derrigorrez.

Azken osagaiak nahastu zituen, erlojua begiratu, eta zain geratu zen. Grimoriumaren arabera, minutu batzuk besterik ez ziren izango. Minutu batzuk gehiago, demontre! Haatik, hainbeste denbora igaro bazuen ere, honez gero, hau lortu nahian, une labur hauek amaitezinak iruditu zitzaizkion. Beste pixka bat, arren, pixka bat, besterik ez. Lortu egin zuen.

Gelako horma oso bat goritu egin zen gorgarriki, suaren dantza erotuaz mozorrotuz une berean. Ez zen ordea hau, su arrunta, eta ez zuen garrarik atera, beste nonbaitetik zetorren, izendaezina den sakan ilunenetik, ausaz. Seguruenik. Horman itsatsirik balego mugitzen zen sua, zelatan antza, larderiatsu betiere bi dimentsio haietara zedarriturik. Horrelako zerbait itxaroten bazuen ere, gure laguna aho bete hortz geratu zen arras. Azken unean zalantzek eraso zioten. Aitzitik, muzin egin zien oldarki.

Igarobide beltz eta borobil bat zabaldu zen horman bat-batean gorgarri, eta bera ipurdiz erori zen atzera, alimaleko sustoaren ondoren. Hala ere, bere kikilkeria

menperatu zuen berriro ere, irmoki. Ez zuen hutsik egingo. Ezin zuen hutsik egin. Ezin zuen. Heldua baitzen bere benetako ordua.

Irudi bat irten zen pasabidetik. Itxura liluragarria zuen, mirestu zuen, egiatan gorpuzkera aparta. Ezin izango zuen egoki deskribatu, hori ezinezkoa bailitzateke ziurrenik. Ilea pizturik zuen irudiak, gar erogarriez, baina ezin zuen baieztatu jantzirik ere zegoenik, hain zen jasangaitza bere presentzia. Eta zirrara hori areagotzeko, etorri berriaren begirada zegoen. Indar ikaragarria isurtzen zuen begi distiratsuetatik, den guztia azpiratzeko jaio izan bailitzan. Nor izango zen horrelako begirada bat eusteko gai? Galdetu zion alferrik bere buruari. Nork egin lezake? Inork ere ez. Ezta inork ere!

– Nork deitu nau? – egotzi zion irudi piztuak, bera bakarrik bazen ere gela osoan aurki zitekeen beste pertsona bakarra. Jolasean ala? – Nork deitu nau? – errepikatu zuen ozenkiago, besteak ez baitzion erantzuten.

– Nnn... nik. Nik. – maiseatu zuen ahal moduan besteak. Bere totalka hitz egite hori ez zen ez gutxiagorako.

– Hik. – ez zen galdera bat.

– Bai.

– Eta zertarako? Ba al dakik nor naizen?

– Nolabait... bai.

– Ba al dakik nor naizen? – errepikatu zion berriro.

– Bai.

– Ez dezagun orduan denborarik galdu.

Azkenean bai, lortu behar zuen. Gaztetatik izan zen bere obsesio arreena, kiskalgarriena, bizigarriena. Bere aita zerraldoan ikusi zuenetik, gogoratu zuen. Zurbila, zurruna, munduko edertasun guztietarako itsua; egunsenti gehiagorik ez gizaldi eta gizaldietan, ez irribarrerik, ez besarkadarik, ez... milioi bat urte eguzkia mendiak zeharkatzen ikusi gabe! Milioi bat milioi urte! Eta gehiago, ene, gehiago. Nork jasan zezakeen horrelakorik?

Hala eta guztiz ere, bazirudien bera besterik ez zela ohartzen, gela hotz eta negarti hartan. Beste guztiek tristura tankera bat agertzen zuten, hunkiturik beharbada, edo hala agertu nahi zuten bederen. Ama negar batean zegoen, gainontzeko hurbileko senideak antzera, goibeltasun ilun batean murgildurik. Baina ez zen hori. Ez. Ez zen hori bere arimaz jabetu zen sentipen hingatzailea. Ez al zuten sumatzen bada, Dama Beltzaren soinekoaren fereka, limurtzaile bezain zarrastatzailea, barreneko hezur guzti-guztietan erroturik? Ez al zien bi huts mugagabeen arteko txinpartaren ezgauzak gogamena infinituki ohiltzen?

Balirudike ezetz. Berarentzat, alta, goitik beherako antzaldaketa suposatu zuen aitaren heriotzak. Begien irekitze bortitz bat, borroka lazgarrienerako zioa. Eta beldur izugarri, neurgaitz eta atergabea halaber.

Ikasten hasi zen, ero antzera, etsipenak ematen zion erabakitasunaz horniturik. Egon behar zuen bideren bat halabeharra nola edo hala saihestu ahal izateko. Egon behar zuen! Eta berak aurkituko zuen.

Ikas zitekeen dena ikasi zuen, eta gehiago ere. Pixkanaka, bidezidor bat irekiz joan zitzaion. Baziren hainbat bide, arriskutsuak, ezinbestean. Baina hori, bizitza serio hartzen duen edonorentzako ebidentea zen, hausnartu zuen, ezin baita borrokara joan dena gal daitekeen uste osorik gabe. Erantzukizun-gabetasun barkaezina litzateke.

Itsukeria hutsa. Ondiko handienetarako egon behar zuen prest, nahi zuena lortu nahi bazuen. Bera prest zegoen. Orain ziur zen. Orain behintzat bai.

Goi-*grimoriuma* lortu zuen, egin behar zena egin zuen, eta orain saria eskura zekusan. Berak imajina lezakeen saririk garaiena, berealdikoena, bikainena ; Heriotik itzurtzeko aukera! Hilezkortasuna!!

– Zein da hire eskaera? – jaulki zion agerpenak ahots burrunbatsuz.

– Hilezkortasuna jauna. – erantzun zion besteak ia arranditsuki. Bere nahiaren lorpen hurbilak ausarkeriaz blaitu zuen antza.

– Hilezkortasuna? Zertarako nahiko huke ba hik betiereko bizia?

– Hori nire gauza da jauna. Uste nuen hori eskaintzeko gai zinela. – ihardetsi zion apur bat kezkatu. Egin behar zen dena egin zuen. Orain ezin zion ukatu! Ezin zion ezetz esan, otoi!

– Horixe naizela gai, memeloa halakoa! Zer uste duk? –itxurazko amorru suminaldi batek hartu zuen, eta literalki su eztanda batean zartarazi zen, gela osoa argi jasangaitzaz gainezkatuz. Gure lagunak begiak ireki zituenean, denak berdin zirauela ohartu zen, baina horrelako indar erakustaldi baten ondoren, dardara geldiezin batean hasi zen.

– Barkatu jauna, barkatu. – eta irudiaren aurrean makurtu zen umiliaturik. – Nik... nik ezin hobeto zerbitzatu zaitut hainbat urtetan. Uste nuen... uste nuen hori eska niezazukeela.

– Mmm... – murmurikatu zuen agerpenak. – Egia da bai, ondo zerbitzatu nauk. Badakik? Hire eskaera onartuko diat. Bai, hilezkor egingo haut. Tipo jatorra naizelako, gero.

– Benetan? – eta bere begiak itxaropenaz urpetu ziren.

– Nik ez diat gezurrik esaten! – oihukatu zuen berriro trumoi antzera.

– Noski, noski.

– Zehaztaperen txiki bat. Hilezkortasuna heureganatzeko, lehen hil egin behar duk.

– Zer? – galdetu zuen mesfidati. Zertan ari zen ordea? Bazekien bere aurreko agerpen hura ironiaren maisua zela. Adar joka ari ote zitzaion?

– Esan diat nik ez diodala gezurrik. Ez duk txantxa. Heuk ikusi nola egiten duan heure buruaz beste.

– Neure buruaz... beste... egin?

– Bai. Behin hil eta gero, hirugarren egunean piztu egingo hintzateke, berriro *sekula sekulorum* ez hiltzeko.

– Hirugarren egunean? Baina hori... hori ez al da...?

– Ez huen ba pentsatuko lehenengoa hi hintzenik, ez da hala? – moztu zion besteak.

– Ez ez. Bakarrik...

– Zer? – bota zion zakarki.

– Beno, deus ez.

– Hori dugu guztia beraz?

– Bai. – Zer erremedio. Ez zen beste ezer esatera ausartu.

– Orduan, badakik zer egin behar duan. Heldu horri! – oihukatu zion, airean desagertzen zen bitartean. Gure lagunak gorde zuen irudiaren azken oroimena, irkaitz bitxi bat izan zen, nolabaiteko irribarre maltzurra. Haatik, beste gauza garrantzitsuagoak zituen orain buruan. Hilezkorra izango zen! Beste pixka bat. Pixka bat bakarrik.

Pozoina aukeratu zuen. Tiroz edo labarren batetik salto egiteari bortitzegia iritzi zion bere izaera baketsurako.

Lagun gutxi agertu ziren hiletara. Ezin izango zituzkeen egiazki gehiago espero, bere bizitza bakartia kontutan izanik. Ez zen ezer aipatzekorik gertatu; pare bat malko, pare bat hitz. Eta etxera.

Hirugarren egunean, ikaragarritzko konbultsioak jota, esnatu egin zen, esnatu ere. Hasiera batean, itotzen ari zen sentsazio lazgarria izan zuen gainean, arnasik ezin bereganaturik, eta non zegoen asmatu ezinik bere zorabioan. Segundo luze batzuk igaro ostean, alabaina, gogoratu zuen. Hilezkortasuna. Hilezkortasuna! Barre egin zuen. Berriro egin zuen barre pozarren. Betiko bizitza. Betiko! Ez zuen ez inoiz hain barre alairik egin.

Eta ez zuen inoiz gehiago egingo.

Zerraldoaren barruan aurkitu zuen bere burua. Klaustrofobiako atake mutiri baten ondoren, norbaitek (inoiz badare) entzungo ziola uste nahi izan zuen, bere burua lasaitu nahi izan zuen. Denbora zuen horretarako, ez? Ez? Kolpeka hasi zitzaion zerraldoaren estalki sendoari ordea, ero moduan. *Bada norbait? Norbaitek entzuten al du? Arren, arren!! Oso ilun dago. Oso. Ireki! Ireki atea!*

Hilezkortasuna, maiseatzen zuen tarteka izaturiko begiradaz, hilezkortasuna. Bere beldurra areagotzen zihoan denborak aurrera egin ahala. Izan ere, bere gorputza (gorpua ia), jan ezean, mugaraino ahuldurik zen, eta minak eta itolarriak goraka ari zitzaion. Min ikaragarria, berebizikoa, amaigabea. Hilezkorra. Hilezkorra!

Negar egin zuen orduan, ironia beltzez gainezkaturiko negar pattala, indargea.

Orain, hainbeste desiratu izan zuen betierekotasun osoa zuen bere burua
madarikatzeko. Eternitate sorta bat berarentzako bakarrik, eternitate guztiak. Eta
bitartean, garai batean hainbeste izutu zuen horretan pentsatzeko astia, orain
hainbeste irrikatzen zuen horretan. Heriotzaren misterioa, berak orain ezagutu ezin
izango zuen atsedeen eternoan mugitzeko ahala. Heriotza, heriotza...! Herioa...
...hotza. Hotza. Gaua. Mina. Betiko. Betiko! *Ireki atea, arren! Ireki...!*

Makaletik madarikaturako trantsizioa

Aintzane Agirrebeña Ubera

Hamaika pauso triste egina naiz ni. Nire bizitzako unerik zailenak izan nituen haiek. Ez zen eguzkirik irteten niretzat eta hodei ilunek kaleak iluntasun likits batez horditzen zituzten. Mundua gero eta estuagoa egiten zitzaidan; jada, ez nintzen bizitzaren pasabide estuan barrena kabitzen. Hainbeste estutzen ninduen non ez bainuen arnasa hartzeko betarik izaten eta ito beharrean nenbilen. (Beno ez dezadan larregi exajeratu...) Etxeko arazoak gutxi bailiren, uztar-lagunak "ondo bizi" esanda aldegin zidan eta eskolan ez nuen ia bat bera ere gainditzen. Nire zerupeko unerik zailenak izan nituen haiek. Sasitik irten orduko lar tartean sartzen nintzen. (E! Zu! Irri bat atera zaizu! Ba, ez pentsa, ez zen nire errua nota txarrak ateratzea, irakasleek gorrotatu egiten nindutelako zen dena...)

Nik deskuidu txiki bat egiteko zain egoten ziren haiek, eta uste gutxien nuenean, denen aurrean lotsagarri uzten ninduten. Nik ezer gutxi egin orduko, begirada zitalak zuzentzen zizkidaten. Ondoren etortzen zena, halaber, ez zen atseginagoa izaten; behin eta berriz errepikatzen zitzaidan amets gaizto hura. Haien ezpainetan osatzen zen "ZU!" beldurgarriak eztarria korapilatzen zidan. "ZU KALERA!" ozena zetorkidan behin eta berriz. Bigarren ilarako mahaian eserita egon arren, ate aldera ematen nuen pauso bakoitzeko nire mundu txiki hartako pieza bat erortzen zitzaidan lurrera, dena puzzle hauskor bat izango balitz bezala. Buru makur irteten nintzen, baina horrek ez zidan besteek nire kontura egindako trufa isila sentitzea eragozten. Ikasle txarra nintzela zioten, baina inoiz ez zidaten aukerarik eman. Eta nire pauso isilak korridoreetan barrena mugitzen ziren, atzean geratutako ikasleen barre eta ziriei jaramon zipitzik ere egin gabe.

Ikastolan neu nintzen azkeneko mamu gorria;ez nuen lagunik izan sekula eta eskola berrira pasatu nintzenean okerrago izan zen. Ikusi bezain laster, gelakide guztiak ezkerreko begiz hartu ninduten (nik ere ezin nituen haiek jasan, baina ni bat nintzen eta haiek asko). Makinatxo bat bider joana naiz etxera ubelunez belztuta, baita odolez makilaturik ere. (Noski, makilaturik edo margoturik ez dakit, baina, makilakadak hartuta bai behintzat). Gurasoek, honen aurrean, ez zuten ez mutik ez zirkinik egiten. Horiek haurren arteko "adineko borrokatxoak" zirela esan ohi zuten eta ez ziren ohartu nire estuasunaz, egin nuena jazo zitzaien arte. Ordura arte sarri jaso ohi nituen bezalako jipoi bat kobratu ondoren, etxera joan eta inor ez zegoela ikustean, aiztoa hartu nuen eskuartean. Inoiz ez dut berriz halako esperientziarik izan. Bihotzaren taupadak gorputzeko kokagune bakoitzean nabari nituen baina gehien eskumuturrean. Aiztoa bertara zuzendu nuen zainak mozteko asmoz baina ez neukan indarririk eta eskuetatik ihes egin zidan. Izerdi patsetan nengoen eta zer egin ez nekiela, amaren logelara joan eta kaxoitik zapi ilun bat hartu nuen, begiak estaltzeko. Bigarren aldiz saiatu nintzen, zapia begien inguruan nuelarik, izua aldenduko zitzaidalakoan, baina, ez zen hala izan. Gurasoen urratsak entzun nituenean bakarrik erreakzionatu nuen. Eskua dardaraz hasi zitzaidan eta begirada lanbrotuak ez zidan eskumuturra erakutsi nahi. Itsu-itsuan, jesus amen esan orduko, zast! zainak ebaki nituen. Normala denez, ez dut ezer gehiago gogoratzen, anbulantzia zaratatsua izan ezik, irudirik gabeko formak.

Erizaindegian itzartu eta nire gelakide guztiak bertan ikusteak, bihotzari salto bat eragin zion, aurpegia zeharo aldatuz. Gelakide guztien begiradak ni nentzan oherantz zuzentzen ziren eta behingoz, denen arreta neureganatzea lortu nuen. Errukiz begiratzen zidaten eta nik, bitartean nire –aspaldidanik entseiatu gabeko– irrifarrik

zabalena eskaintzen nien. Lau horma zuri haien artean egoteak ez ninduen batere alaitzen are gutxiago kable eta makina haiek inguruan nituelarik. Egunak eta gauak igarotzen nituen egindakoaren azterketa sakona egiten, buruan mareatu arteko jira-birak emanaz. Egoera hura ezingo nuela gainditu iruditzen zitzaidan, eta lotsa sentitzen nuen nire gurasoen aurrean. Baina mundua buru gainera eroriko zitzaidala uste nuenean Mirari agertu zitzaidan. ("Nor da Mirari hori?" pentsatuko duzue...) Ba... Mirari erizaindegiko gelakidetzat nuen Imanolen arreba zen, ordura arte inoiz ikusitako pertsonarik alai eta biziena. Egunero-egunero bere presentziaz betetzen zigun gela, piper,gatz eta azukre nahasketa bat hedatuz gelaren azalera osoan. Lehenengo aldiz ikusi nuenean, mututurik gelditu nintzen, ahoa memelo baten antzera zabal-zabalik nuela. Bere begietan zuen bizipoza kutsakorra zen; irrifar goxoak gaztetu egiten zion eguzkiaren distira bezainbesteko argia isurtzen zuen aurpegi alaia. Anaia loak hartzen zuenean, bere ondoan egoten zen liburu bat irakurtzen. Orduak eta orduak pasatzen nituen, konturatu ere egin gabe, bere mugimenduak aztertzen, zer esan jakin gabe. Goizetan, Mirari ikusteko irrikiak goizago esnarazten ninduen. Imanolengandik jakin ahal izan nuenez, Mirarik ez zuen senargairik, eta nire buruak beregana nola hurbildu beste arazorik ez zerabilen, bere gogameneko igarobideetan barrena. Azkenean heldu zitzaidan aukera: bere urtebetetze eguna zela eta erizaindegiko lorategitik ostutako loreak eskaini nizkion, lau arrosa gorri. Bai zoriontsu egin ninduela eskertzeko eman zidan musu hark! Bizitza berri bati ekingo niola sinestu nuen bete-betean. Hurrengo egunean, Mirari erizaindegira iritsi aurretik berriz lorategira ihes egin nuen hain gogoko zituen arrosa gehiagoren bila, ordainez beste musuren bat jasoko nuen esperoan. Baina bizitzak nahi duenean petrala izaten ere badaki eta... Itzalean nengoen bitartean etorri zen Mirari, baina ez zetorren bakarrik, motorrean zekarren mutil batek. Mirariren barre

algarak iristen ziren nire entzumenetara, beti bezain alai, eta baita bere ahots leuna ere, beti bezain goxoa, txoriei buruzko hizketaldian. Belarriak zorroztu nituen orduan, bere bizitzaz zertxobait gehiago ikastekotan, eta gutxien espero nuena jazo zen. Nitaz hitz egiten ari zen larruzko txaketaz jantzitako tipo harekin! Mirariren algarak nire kontura eginikoak ziren, lumatu gabeko txorikumeak loreak oparitu zizkiola eta! Mirari bakar bat gertatu zait bizitza nekagarri honetan eta bera ustelduta zegoen barrualdetik.

Orduak eta orduak pasa behar izan nituen nire barneko tristura guztiak kanporatzeko eta azkenik, heldu zen berriz etxera itzultzeko garaia.

Zuriz mozorrotutako etxe izugarri hartatik atera nintzenerako, dena bere normaltasunera itzulia zegoen. Gelakideek jarrera berbera azaltzen zuten nirekiko nahiz eta lagunak bat edo beste hurbildu galdera batzuk egitearren. Jakin nuen, derrigortuta joanak zirela ni bisitatzerako eta barre egiten zidaten ni ikustearren joan zirela uste izateagatik. Indartsuenek ni jipoitzen segitzen zuten eta ni ez nintzen haien sakeak errestatzeko gai (bazirudien denek Mikel Goñik besteko abiadura eta indarra zutela sakea ateratzerakoan). Gurasoek, berriz, ildo beretik jarraitzen zuten, lehengo lepotik zuten burua. Hobeto zaintzen nindutela uste zuten, baina dena lehen bezala zegoen.

Egun batez, bizikletaz eskolara nindoan batean, bigarren mailako ume bat parean gurutzatu zitzaidan, eta istripua ezinbestekoa izan zen. Aurpegiaz lurra jo eta sudurretik odola zerion. Zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Bitartean, txikia masailak lehertu beharrean negarrez ari zen. Ni jipoitzen ninduteneko irudia etortzen

zitzaidan behin eta berriro burura. Zenbat ukabilkada, zenbat ostiko hartu behar izan nituen isil-isilik, umekeriak zirela eta. Nire sudurrak ederto zenbatuak zituen gelako liskar altxatzaile haiek atzaparretan zenbat hatz zeuzkaten. Barrena irakiten jarri zitzaidan. Lehenengo ostikoa eman nionean ez nintzen konturatu zertan ari nintzen, bere lagunak garrasika hasi ziren arte. Ingurura begiratu eta beldurra ikusi nien ume haiei begiratuan. Han ez zegoen iseka eta barrerik. Ni nintzen han indartsuena eta hori gustuko nuen. Bigarren ostikoa, nire hezurak mami bihurtu arte jipoitzen ninduten haientzat izan zen; nire gurasoentzat, behin eta berriz zigortzen ninduten irakasleentzat... Hiruzpalau ostiko gehiago eman nizkion, nagusiak gerturatzeko hasi ziren arte.

Egindakoagatik ez nuen atarramendu txarrik jasan behar izan. Erraz libratu nintzen zigorrik jaso gabe, baina ez zen hala gertatu nire barruan piztu zitzaidan irri berri harekin. Su hark, barrena irakiten jarri eta indar berri batez betetzen zidan gorputzean sentitzen nuen hutsunea. Nire menpekoak zeintzuk ziren bereizten bai azkar ikasi nuela! Oilo busti haien begietan ikusten nuen beldurrak eta euren negar barregarriek nire barneko arrangura errotuari ura irrigatzen zioten, gorroto itsu bihurtu arte. Haien izuaz elikatzen nintzen. Izu-ikara sakratuaren aurrean hazi egiten nintzen.

Ez zen hilabete bat pasatuko, eskolan zegoen "makarra" tankerako mutil anker hura droga eskainiz etorri zitzaidanean. Entzuna zuen ematen zizkidaten jipoien berri, baita nik eginiko ekintzen berri ere. Tipo hark, ondo baino hobeto zekien ezingo niola hauts zurixka hari uko egin. Mundu hilkorri ihes egingo niolakoan, egunero-

egunero erosten nion sobretxo bat, gutxienez. Alderatzen zenean, nire eginkizunetan jarraitzen nuen. Inork ez zuen ezer susmatu.

Gero eta zorrotzagoa nintzen jendearekin eta nire jenioa biziagotu egin zen. Hasieran, dirua behar nuenean gurasoei lapurtzen nien baina gerora, diru eskaera emendatzean, beste diru iturri batzuk aurkitu nituen, izan ere, munduan makal ugari baitago. Biderik errazena banketxetik irteten ziren aiton-amonak izaten ziren; konturatu orduko haien karteren jabe egiten nintzen.

Unibertsitateko lehenengo egunetan gelakide guztiak aztertzen aritu nintzen. Bat edo beste liskar altxatzaileak baziren ere, jadanik era horretako asunek ez zidaten hazkurarik ematen. Txikitako makal planta hura atzean utzi nuenetik, jendearen begirada nigana zuzentzen zenean apalagoa izaten zen. Birritan pentsatu behar izaten zuten niri hitz erditxo bat zuzendu aurretik; nire larruzko jakako ezkerreko sakelari eramaten nuen hamazazpi zentimetrotako labana ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Nire gainontzeko itxura ere itzela zen: kaskarra zerora moztuta, nire zaharraren bihotzaren kaltetan bi belarritako eskuineko belarrian eta beste bi sudurrean eta, nola ez, kendu ere egiten ez nituen koadrodun prakak. Unibertsitateko pasilloetan ibiltzen nintzen istilu bila, liskar altxatzaile bihurtu nintzen neu ere. Niretzat lanean jarri nituen zenbait kankailu; hain zen erraza haiei nire aginduak betearaztea... Nire oinaze guztia barneraturik, lege guztiak irensteko prest, bizitzari iseka eginaz bizitzea nuen jomuga.

Horrezaz gain, dena ondo zihoakidan, droga pasatzen zidanak istripu bat izan zuen arte. Auto batek jo eta hila suertatu zen. Ezin nintzen nire droga gabe gelditu eta hau

uzteak eragina izan zuen nigan. Okerrena eragin hau ez zela onerako izan. Hasieran infernuko suaz gorituta nuen bihotza eta baita gorputza ere. Drogaren menpekotasuna gairitu nuenean, jendeari min egiteko grina hedatu egin zen nire burmuinean. Zuzendariak nire ibileren berri entzun zuenean, bere bulegora deitu eta Unibertsitatean ni bezalakorik ez zutela onartzen esan ondoren pasaportearen eman zidan, delinkuente soila izango banintz bezala... bulego bat izateak ni baino boteretsuago egiten zuelakoan... Hurrengo astean zakarrontzian istripuz eroritako zigarro lipar batek su hartu eta bulego dotorea kiskali zitzaionean apika ez zuen berdin pentsatuko; ez eta bere Renault beltza beste kolore batzuen konbinaketaz apaindu nionean. Ondo baino hobeto jakinarazi nion nor nintzen ni.

Etorkizunaren lokarria galdurik, gizatasunik gabeko presentzia bihurtu nintzen. Etxe huts zaharkitu batera alde egin nuen, nire zaharren aurpegi luzeak berriz ikusi beharrik ez izateko. Nazkatuta nengoen haien betiereko kexuekin, haien beranduko arduratu itxura hutsalekin eta jadanik haien jarduna gehiago entzun beharrik ez nuenez, etxeko bazterretan aurkitutako diru eta baliozko objektu guztiak eramane nituen neurekin.

Denboraren poderioz, nire makurkeriak gero eta ausartagoak egiten ziren. Egin ahalak egin arren, ez ninduten inoiz harrapatzen eta gero eta indartsuago sentitzen nuen neure burua. Merke saltzen nuen nik bizitza. Eskolako umeei drogak saltzeari ere ekin nion eta gainera, berdinez izaten zitzaidan haien adina, nik ongi ezagutzen bainuen krudela izateak ez duela adinik; niretzat, objektuak besterik ez ziren deabrutxo haiek. Erruki hitza nire hiztegitik ezabatua nuen aspalditik. Dendetan lapurretan egitera behartzen nituen aitatxoren umetxoak eta behin baino

gehiagotan salatu nituen hartan ari zirela, gizon handi haien ohore puztua nola husten zen ikusteko. Haietako bat izan zen nire irakasle ohi baten semea: irrati bat osten harrapatu zuten eta etxean, bereak ez ziren beste hainbat gauza aurkitu zizkioten. Mendekua garratza izan ohi da; historiako irakaslearentzat bederen istorio tamalgarria, larrutik nozitu baitzituen hark lotsa eta porrota.

Lapurtu, haurrak zauritu, drogak saldu... zer ez ote nuen egin? Baina niretzat ez zen aski. Legearen muga guztiak zeharkatu nahi nituen. Legearen muga guztiak hautsi nahi nituen, hauen esparrua zabaldu. Zikilu saltsa besterik ez ziren izan ordura artekoak. Sena joanda bezala nengoen, begiak erne, zerbaiten zai. Eta azkenean zeruaren erantzuna izango balitz bezala iritsi zitzaidan zerbait hori. Gau batez, ardoak itzala egiten zidan batean, trenbidean zehar aurrez betetakoa husteratzen abiatu nintzen, han inguruan paseatzen zebilen emakumeak ezagutu egingo ninduela aurrez susmatu gabe. Gelditu eta arreta handiz begira-begira egon ondoren, garrasika hasi zen inguruko jendeari laguntza eskatuz. Nik, badaezpada, hanka jokoak erakutsi nion, ez bainintzen ezkerreko sakelari gorderik nuen labana ateratzeko gai sentitzen. Baina emakume setatia ez zegoen ni joatearen alde eta nire atzetik segika zetorren, itzal ilun baten antzera. Trenbidetik irten nintzen errepidea gurutzatuz. Mirakulua izan zen une horretan nigana zuzen-zuzen zetorren autobusak ni ez zapaltzea; berak ez zuen zorte bera izan, ordea. Herioren, igitaidun zaharraren, itzal hotza, atzean, hain gertutik sentitzea bizigarria egin zitzaidan; ni hilezkorra nintzelako burutazioa sortu zitzaidan kaskezurrean.

Nire larruzko txaketa beltzeko poltsikoan pistola erabiltzen hasi nintzen, pistolak hamazazpi zentimetrotako labanak baino errespetu handiagoa ematen baitu. Nire

ausardia amaigabea zen; sarri ateratzen nuen pistola. Besteen beldurraz elikatzeaz gozatzen nuen, drakularen antzera, haien odola edanez... Jendearen aurpegikeretan marrazten zen izuak boteretsu egiten ninduen, eta azkenean nire handiusteak galdu ninduen. Tabernari bat garbitu nuen bezero guztien aurrean, oihu eta garrasi artean. Azkarra nintzela uste izan nuen, nire pistola indartsua zela, baina ertzainen eskuetan erori nintzen, atxilotu egin ninduten; argia nintzela uste izan nuen, baina juezak hogeituro urteko kartzela zigorra ezarri zidan; indartsua nintzela uste izan nuen baina kartzelan pairatutako torturek bizitzaren gogortasunak ni ere barne hartzen ninduela erakutsi zidan.

Hamar urte pasa nituen ilunpetan, eguzkiaren argia berriz ikusi orduko. Pareta beltz haien orroa mutua, haien irudi zehatza, nire erraietan gelditu zen betiko itsatsirik; hasiera-hasieratik argi utzi zidaten han indartsuena ni ez nintzena. Bizitzaren mugak ebidentziaren aurrean ikusten dira, eta kartzelak erakutsi zidan iheskortasuna zela nire izatearen funtsa. Izerdi hotzez, lau paretei loturik, gatibuan igaro nuen hamar urte haietako egun bakoitza.

Oso mantso joan ziren urte haiek niretzat, baina irten nintzenerako, jendea kaltetzeko gogoak ospa egina zidan. Berrero kartzelara joatearen ideia ez zen batere tentagarria eta bizitza berri bat eratu nahi nuen, nire burua kausitu. Baina nire bizitzaren kausetik jauzi batez irtetea nahi izan banuen ere, kalean, denek, aurpegikera arraroz begiratzen ninduten, urteetako Sufrimenduaren kiratsa nire gorputzari atxikirik balego bezala. Ezkontza kontuak ere erabili nituen buruan jiraka, baina, nor ezkonduko zen ni bezalako tipo nardagarri batekin? Mundu gizatiar soilak

mundu ilunaren sakonera baztertzen ninduen. Bestalde, ideia honek hotzikara sortu eta zeharo tristatzen ninduenez, Ameriketara etortzea erabaki nuen.

Bakar-bakarrik bizi izan nituen ondorengo hogeitun urteak, mendiko etxola zaharkitu batean, lurreko arazoez at, naturaren putzu sakonean nire zatiezinezko sumina ito nahian, nire burua aurkitu nahian, nire mundu hutsala galdutako paraje hartan ezkutatu nahian. Hasieran pozik bizi nintzen inoren kexuak entzun gabe, baina asper-asper egin nintzen etxolako isiltasunaz eta nire barnean ernaldutako harraren kurruskak entzuteaz.

Bakardadearen bakardadeak eraginda noraezean nenbilen, tristura eta sufrimenduak goitikatu nahian. Jadanik jasangaitza egin zitzaidan isiltasunean murgildutako isiltasunak oihukatutako hitz isilak, isiltasunean galdutako zurrumurruak...

Gabean ez ninduen loak hartzen. Hain zen handia nahiaren oinazea... Honen aurrean hiriratzea pentsatu nuen eta hemen ikusten nauzue zaharren egoitza horietako batean (beno, ez nauzue ikusten baina imajina nazakezue, ezta?).

Ez da arrunta izan ohi hain gazterik egoitza batean egotea, baina inork ez zidan ezetzik eman eta nire zerupeko aldi kaxkarrari azken puntua bertan jarriko niola erabaki nuen. Orain badakit bizi eder bat alferrik galdu dudala. Hala ere, nik honela bukatzea beste batzuen errua izan da nirea baino gehiago, egin dudan guztia burutzera ingurukoek bultzatu bainaute. Nork daki, apika, guraso ezberdinak izan banitu munduko gizakirik zoriontsuena izango nintekeen. Agian... hau ez da ustea

bestarik (Usteak erdi ustel), baina nire bizitza irtenbide bakarreko pasabidea izan da eta ez dut beste ezein ihesbiderekin topo egin. Nork alda dezake patua?

Egoera honi aurre egiteko kemena izan beharko dut gelditzen zaizkidan urte apurretan. Inorengatik zapata gutxi urratu baditut ere,hemen lagunen bat egitea espero dut, neure azken finean lagunak izan ditudalako poztasun izpi batekin hil nadin.

Udagorriko arrastiri hartako urtegiratzea ortotsak lagun edo

Euritan blaituriko ur-belarretan

Vicente Gil de Paules Balda

2000ko uztailaren 19a

Sandinisten (FSLN) garaipenaren hogoita batgarren urtemuga.

“Viva Nicaragua Libre!”

Hi baizikan ez? Tta!¹ Ttattiko! Tirrit!

Hi eta kitto? Bai, zotza! Bai bost!

Hi eta bertze ezein ez? Ezta pentsatu ere!

Hala? Ezta hurrik eman ere?

Hala? Baia?² Bai, zera!

Hi eta haiek,

hi eta zuek, eta

batzuetan

ni neure buruarekin baizikan ez.

Hain maitagarri baitzarete,

bai alajaina!

Pott, pa, ma, matto eta bixiko.³

¹ Tta: ttattiko; tirrit; bai, zotza; bai, bost, ezta pentsatu ere; ezta hurrik eman ere; fa.

² Bai, ala?

³ Guziak musu.

Euskaltegien azkeneko bestatik heldu nuxu. Ikusi ditut! Baiki,⁴ bertan zituxun, bi-biak, bi-biak elkarrekin nahiz zein bere aldetik. Izenak Ane eta Ibabe. Ibabe titi-agerika - salbu ilunabarrean freskatu duenean- eta Ane goikoa jauntzia, baina goikoa ene gustukoa zenez - halako bi triangeluak harat-honak higitzen diren horietarik-, bada xarmanki zela erraiten ahal dixut. Anitz jan dixie; gustatu dixie ahate konfita eta anana-mazurez⁵ eginikako dexerta zerbait; saiatu dixie arnoa, garagarjusa eta Xiberuko ura, erran nahi baita, sagar-likorea; eta dantzatu dituxu; dantzatu dixie jota, merenge eta rocka, vals, pasodoble eta chotis, lotuak zein aske. Deliziusak, bi-biak! Ene gogoko guziz! Aski gorribelzturik itzuli dituxu etxerat; Alde Zaharrean, haien kolorea! Hortzen zuria! Begien distiranta! Ibabek bikiniaren goialdea orduantxe dixu zinez jauntzi, Anek topa zixun jauntzia. Irri galant parrasta bat egin dixugu elkarrekin. Ni honen zoriontsu nintzen, ez bainintzen triste egoiten ahal. Ez ahal! Haiekin? Triste ez, kezkatua, arduratua edo bai, baina triste ez hain maite baititut. Nik haiek bezain maite haiek ni banin- dute! Baiki, tumatxa! Eta aski kontent nuxu etxeratu, haiek gogoan, haiek bihotzean -hor min nixun-, txotxoa zut, ondoan iragaiten zitzaidan zernahi gustuko neskari irriñoz so. Ameslari, honen bertze urte troinuan eta oraino ameslari, XIX. mendeko ameslari. “Agian sarri ikusiren ditut!”

Sagar has, izan ere, titi has dira. Bikiniaren kuleroa baizik ez eta zangoen gainean. Hala. Hala ostatuko jendartean haizu baita. Han barnago eta hobe, hobe ni haien gibelean bainoa eta biziki maite dut udan haiekin hala jendartean ibiltzea, eta haiek badakite arras ontsa non sartu diren. Egarri gara eta garagarjus zerbait erosi nahi dugu. Zorionez eguzkistatua, lorietan, uros, deskantxuan biziki nabil. Baiki, enetxook.

⁴ Bai, egia da.

⁵ Mazura: mailuki, marrubi, arrega.

*Exhibizionista izaitea bestaren antolatzea da.
Exhibizionistak jendeari besta adalatu behar dio,
irri eragin, poz, xarma, solas “Biba hi!”, “Lohi
hori!”, “Biba hi, lohi hori!”... Gogoa, zubi.*

—|—

Udamineko egun batez banuen fantasia batto, orduko ene gutizia minena...

“Hemen, ekigorritan izerditsu ari direnetarik zeinek ote nau maiteko?... Hemen, ostatuan titi-agerika sartuta ari direnetarik zeinek ote nau gogatuko?... Begiz jotzekoez baduk zapart,⁶ emeske⁷ ibiltzekorik ihaurri. Izan ere, bai baita neska-puskarik franko, neska-katxarrorik asko eta laño, zapore ona baitukete orok, ukan, lurrina goxo baitute.

“Baziakit gauzak ez direla egunetik biharrerat aldatzen, baina... Zernahi gisaz, deskantxuan nuk inguruka hamaika neska gisako, agrados eta plantako baita (zenbait eskualduntsa). Berauen arteko baten bat gogatuko, horretaz ez diat den gutieneko arrenkurarik.

⁶ Anitz, franko, asko, ausarki, ihaurri.

⁷ Arreske, emeske.

“Oi, baiki! *Kutx-kutx, ttipirrin*⁸ erraitea nahiko diat eta ni maitekiro guziz menpe, guziz gogalgin joanen natzaizue potikoka⁹ zernahiren milikatzerat, xoko-moko ororen txestatzerat; zartagina zaharra bezain gormanta¹⁰ ukanen nazue, urde ahari galant¹¹ hauek, eta ni joan eginen nuk zuengana biga-bostetan ase ezinez mirllakatzerat eta zuen teixutzerat¹², eta *Orizue mama goxoa, aketzok!...Arras ontsa!... Horrela!... Irents!... Irents! Hala!... Bai!... Horrelaxe!... Guzia irentsi? Baiki! Eta ederki dakizue ahizuriaren isuriaraz eta ahorarazten!... Tumatxa!*”

Gisa horretakoak nerabiltzan gogoan bihotzetik bero noiz eta ere euskaltegiko bi laguntsa hurbildu baitzitzizkidan.

-Adio!

-Adio...

-Ane eta Ibabe. Oroit? -zein ziren bai, baina izenez ez eta neskek merezi zuten, itxuroso agertu behar.

-Egia! Izenak ahantziak nitinan. Barkatu.

-Ez duk pekatu.

Paregabe! Haien arribatzearekin errealitateak beretuko ninduen, baita ferekatuko ere. Ibabe sagar-agerika zen -sagartzar-agerika neska aski guri baita-, halako

⁸ Urdearen deitzeko elea.

⁹ Katuka, txakurka, pitzi-patza.

¹⁰ Jatun, gosailo, gosailu, jale porrokatu.

¹¹ Makera eder.

¹² Ezpainen milikatzerat eta zuekin larrutan jardutera.

moltsaño zapala sagarren artean dindilizka. Ane jeanmotxak soinean, antxume¹³ eta ezker orkatilekoa zilar distirantezko. Ene aldetiko begitarte osoa izan zuten. Neska xarmangarriak nituen, sekula izan badira.

Tar-tar-tar ari izan ginen ostatuko freskuran, dzanga-dzanga, haiek garagarjusa, nik panaxea. Anartean, atunek adinako begi larriak zabalduz miresten ari nituen, ez baitira entrabaleko urruxunak¹⁴. Aspaldiko parteko urostarzuna!

-Hik zabaltza baduk, ezta, txotxito?¹⁵

-*Txotxito!* Bai, polita! Hala erran didan! -tutulu¹⁶ ote nintzena? Peio akaso? Nerabe pito ote? Debrua!- Zera... baiki.

-Noiz gonbidatuko? Ala norbaitekin bizi haiz. -Ez, bakarrik bizi nun. Bertzenaz ere...

-Etxaiderik ez, arren¹⁷.

-Ez. Bakar-bakarrik nun bizi, eta abantzuño nolana.

-Ederki, txotxo.

-*Txotxo!* Orai, txotxo! Tumatxa! -peio ez, baina tutulu bai.

-Nahi duka orai joan?

-Orai?

¹³ Antxume: orpogorri.

¹⁴ Ez baitira neska makalak.

¹⁵ Txotxito, txotxo, txo, tto, to; neskei no, ño.

¹⁶ Pito, ments, kaiku, babu, tentel, tetele, ñuku, pettux, sopikon, kaskamelontzio.

¹⁷ Beraz, hortaz.

-Bo, seiak pasatxo dituk; ziuraski, han orai goxo duk.

-Bo... bai... egia dun.

-Jauntzi eta joanen?

-Ontsa...

-Autorik bai?

-Ez...

-Guk bai: berea.

-Tira...

-Gisa honetan ere gituk han izanen.

-Bo, nik orai ez baina han sagarrak agertuko... -haiek harroara- ziz seinalatu egin zizkidan.

-Eta nik zangartea, aratz diat guziz... -harat-honat so eta kuleroaren aitzinaldea pixkirrin batez behiturik, bilo mikorik ez, aratz-aratz. Neska deminioa! Horrek izigarri irakiarazi zizkidan hunak, eta zer erranik ez odola. Berau, gori-gori; ilenti sutua... Beronen suaz zeinahi ohar zitekeen, ori.

-Ene, neskak! Goazen, arren!

Beharrik baginen aitzinetik elkarrekin solastatuak, euskaltegien azkeneko bestan, arramaiatzean, igeri-lekuan, bertzenaz, tta!, bertzenaz ez dut uste atarramendu handirik ukanen nuen; alta, alorra landua zen eta neskak biziki jator, arras jendekoi, guziz adeitsu, ezinago maitagarri. Xerka ari baitziren. Gaitz erdi!

-Laket?

-Ontsa.¹⁸

-Onduko, arren?

-Onduko ez dut, ba!

— || —

Halakoaren nahi gorria bainuen, entseiatu nintzen, senperrenak egin nituen eta hantxe nintzen, harraskan ipurdia sartua, xaboidun ur epela sabeleraino, odola areago irakiten ari, haien beharrear, haien osoki beharrear. Hunak -oi, hunak!-asmoez zapartatu beharrear. Demontre!

Atsegin bat gaitzak gaxokatu¹⁹ gintuen haiek xaboia kendua txo-txo-iztersaguei ekinez eta ni haien aldetik zernahi bilduz.

Txotxotik-iztersaguetarik ez ezik, pikostetik ere ari izan ziren sendo. Haien sakea! Mauka-mauka, ezpain, mihi eta guzi. Hala, eta titiztatu²⁰ ere egin ninduten.

¹⁸ Ongi, ondo.

¹⁹ Gaxokatu: laztandu, ferekatu.

²⁰ Titiztatu: titia eskaini edoskitzeagatik.

Ene ametsa ziren. Haienganako maitasun handienaz gainditua²¹ nintzen. Kanpoan Jainko ttipia²² zebilen.

Haien aldi. Zabaltzarat atera, etzangian elkarrekin ezarri eta orotarik egiterat utzi ninduten. Pareko zabaltzan halako lagunartea bazegoen; tarteko neska bat, bikiniaren bularretakoa soinean, so zen, so zitzai- gukeen... “Harat harako urdangaño horiek eta beren ordotsa. Urdangak sagar-agerika eta, ziuraski, pikarrai, baita apotea ere, baina hemendik ezin haboro ikus. Neskak jarri edo etzan bide ditun eta morroiak txotxoa ekainiko txotxontzi horiei, edo, heldubada, haiek hari usoa eskainiko nahikara milika diezaien. Lohiak halakoak!” Gostu-gostuan harako neska hura pareko zabaltzatik guri soz ele horiek oro gogoan.

Funtsean ez ginen interneten, ez bideoan, ezta ezein aldizkaritan ere. Pare-parean gintzaizkion, bizi-bizirik, berebiziko xanfartaren²³ baitan pulunpaturik, izerdi-trenpan, net ekiztaturik eta gogo onez ari gintzaizkion elkarri, ari ere.

Zangotan²⁴ para nendin nahi eta halaxe nuen egin; zankaparka²⁵ ere nahi, eta gogotsu obratu. Amoros nituen guziz. Miresten ari nituen, balios, delizius nituen beren horretan, erran nahi baita, oro eskuragarri, oro gogalgin.

-Gostuan, zankako bat ona edanen nuke!

²¹ Betea.

²² Jainko ttipi: andraize, hegoaize, haizego.

²³ Xanfart: oturuntza.

²⁴ Kaka egiteko gisan.

²⁵ Zankaparka: à quatre pattes, pitzi-patza, lau oinean, katuka.

Txiza egin zezaten nahi. Urtxuria nahi. Nolaz behar zuten askatu beren burua eta hala eginenez nolaz behar ziren gozatu ikusi nahi eta harat han gernu beroa zirrikituei iheska. Oi!... Hauta bi-biak! Xarmanki²⁶ ari laztanak! Eta etzanak txiza nolaz ari zitzaien eskapatzen senditzen ari zireino, titimokoei lotu nintzaien, zutagotu zitzaien, nehongo arazorik gabe ibili nituen. Lau-laurak airos, ezpainetaragarri, mihiragarri, ttuztagarri. Gostuan eginen nien nik txiza, baina “Hurrengoan, txo!...”. Hurrengoan, ori, eta hurrengo hori ere ez bide zitzaigun nolana hiko agtuko. Anartean, txizatan ziren oraino, taigabeko iduri zuen; ez zen estonatzeko ur-garagarjusak²⁷ ausarki edanak baitziren. Nahi nuen ametsetan bezala sendi zitezten, ametsetan bezain aske, beren eskuko eta txiza eskapa zekien, eta ohartuagatik, atxik ez zezaten, aitzitik, kontua polita iduri eta segi zezaten, ttinka bat bera ere geldi ez zekien arte, hain justuki. Eta ni beha, estonatu guziz, maitemindua guziz, ferekatuz haien larru goxo guri belloaren haztatzeko irrikaz, masailen hantxe ezartzeko irrikaz, haien gainean paratzekoaz. Anartean, txotxoa zut-zuta, gogor, sentibera, iztersaguak hustutzekotan, berauetan hatzak. Neska politak musua itzulia. Pixkirrin batez. Ixil-ixila nonbait hura baizik ez baitzen handik soz.

Txiza egin baikoz, gainezka egin zuten²⁸; gainez eginik, lo seko eta nik pareko neskari beha idiarena, harendako, hura eni soz, begietsiz parte hartu nahian, eta ez zirudien so egitetik kantitu behar zenik. Zorionez! Maite ukan nuen haren honat beha egon izana, haren ikusi nahikeria ahalkegabea. Baiki, izan ere, zirrara garriago da biluzgorritarizona edo larrutan ari izaitea gostuko norbait beha baldin bada. Bai,

²⁶ Polito, ederto.

²⁷ Ur eta garagardoa.

²⁸ Korritu.

alajaina. Biluzgorriak edo larrujoileak ageri-agerian, baita behazaleak ere. Zelako neskak atseginez ari ninduen betetzen. Ba ote zena negugorrian biluzgorritu eta pirripitaz hotzak hotz karrikaz karrika ibili zen neska? Irrati libreak proposamena plazaratu eta delako neska lotu zitzaion harik eta denbora luzean harat-hunat korritua polizia agertu eta halako burusia gaineratu zitzaion arte. Exhibizionista balitz! Urtegiat bidean, aldapari goiti agertuko balitzait, edota parkeren batean ekigorriak zinez dzinkatzen duen orenean. Izigarri xarmatuko ninduke.

Ontsa jan, ontsa edan, lagunei ekitakoa zabaldu eta barnerat joan nintzen, akiturik, losuz, etzan beharrean. Neure buruarekin zinez ontsa. Bazen, izan, gozaldiez zapart, izan, bazen atseginez ihaurri. Pareko neskak eta laurok haien puska sendituak ginen. Ez zen azken aldia izanen.

Ez.

Ez, ezen handik egun gutirat...

— III —

Albait arinen abiatu ginen, zirt edo zart, erauntsiak²⁹ atzemanen bagintuen.

-Hauxe gogo!

-Eginen?

-Bikinia soineratu eta bertan gituk han.

²⁹ Ekaitz.

-Ontsa.

Bertan ziren hemen eta hirurok bertan³⁰ ginen han.

Euria zekarren zinez. Zerua edder zen: hodeiak gainean genituen. Ordua arte gisa horretako mement txiki³¹ ukana nintzen biziki; hortakotz, orduko hura erogarri zitzaidan, izan ere. Ezen gogozko bi neskarekin bainindoan urtegiari buruz han euritan blai pikarraitu eta bainatzerat. Zinez kilikagarri! Lotsa ginen urtegirat aitzin hasi eta urtegirat orduko bara. Alta, hasi ez eta gu kontent. Trenpu ezinago on, pausua zale, harat han gu aldapari goiti, zerua ilun, mundua beheiti.

-Nolatan, ba, orai harat buruz izigarriko erauntsia dakar eta? - autoraino titi-agerika, zakua bizkarrean, joanen zen ezagun batek galdegina.

-Pitokeria, xarmanteko pitokeria. Badakin uda zeinen maite dudan, zeinen burutsu senditzen naizen...

-... eta zeinen ero ere bai, horren kontent ibiltzen baihaiz, pitzatu³² hori.

-Halaxe dun, maitea.

-Bada, segi, segi ezazue eta ontsa busti.

-Milesker anitz.

³⁰ Laster, sarri, geren hala.

³¹ Txiki: guti.

³² Ero, zoro.

-Deustaz.

Zelako ezagunak bertze uda batean kondatu zidan udan exhibizionista ibiltzen zela, morroien aitzinean, eta tartean neskaren bat ere bazebilen hainbat hobe. Eguargitan egitekotz, mendian, errekan, piszinen ondoan eta abarretan, gauetz egitekotz jende parrasta bat ibiltzen den lekuetan, hala nola, hiribarneko parkeetan, ostatuetan, karraketan eta abarretan eta beti ere bertze hiri edo herrialde batzuetan autoa hartuta.

Horrek guziak xarmatu ninduen. “Hi ere bahaiteke exhibizionista txotxo polita.” “Edo biok batean; hainbat gauza asma zezakenagu.”

“Baiki, bina tamalez bihar banoak.” “Baia?” “Bai, bakantzatan eta lanean hasten banaiz, gelditu egingen nuk...” “Domaia.” “Bai.” Lagun zitekeen.

Urtegirat arribatu ginen. Ane eta lbabe oraino ez ziren pikarrai³³, baina hobekien paratuak, erran nahi baita, zango pikarrai, zangogorri, zangoen gainean.

Zorionez eguzkistatua nintzen eguzki zipitzik izaitekoz hodeiez haraindi zelarik ere. Lorietan nintzen! Ezin gehiago satifos!

Han berean ginen, han berean oro pikarrai busti nahi; zipatu behar ginen, errotik blaitu. Horixe genuen nahi! Irrikan baikin.

³³ Oinutsik, orpogorri, ortozik, antxume.

-Badakika? -Anek haurra iduri.

-Zer.

Maite ninduela erran zidan, elkarri beha maite nindutela eta ontsalaz aski maiteko nindutela ere bai. Ez nintzen ametsetarik ari. Gaitz erdi! Oro egia zen: maiteño nituen bi neska xarmantekin nintzen, urtegian, euritan eta hirurok biluz golli-golli. Zer haboro urus³⁴ senditzeko? Izanez ere, menstua bezala nintzen, pito edo tutulu, edo ñuku, pettux, sopikon eta kaskamelontzio³⁵, baiki, honen bainintzen urus. Gisa batez, nerabe sendi nintzen, Angostoko³⁶ gogo-jardunaldiean edo Lapuebla de Labarkako³⁷ ikastaldian ari izan nintzen nerabe hau bezalaxe. Kiskun-kaskun baizik ez dut izkiriatur zein mintzatur agertzen ahal... Urus... Urus ninduten, eta horretan kito. Bertze orduz, abantzu aldikal kexu, samur, enuxu, muturbeltz bizi nintzen; aitzitik, neskok ezaguturik eta haien maitatzez, bertzelako naiz. Zeinen naizen lotua neskei! Nesken maitatzeari! Battoren baino habororen! Nolaz naizen aldatua. Geroago eta jendekoiago, bidaide, gogaide, partaide eta bazkide, etxaide, ohaide. Bakardadea hala goxo, goxo baita hala bakardadea. Kolpez hil behar izan banintz, futitu nintzatekeen, ez nukeen "Hauxe izan dea bizitzea? Bada, hauxe kaka!" edo gisako pentsatu, ori, izanez ere, honen goxoki nintzen.

³⁴ Urus: iros, uros, zoriontsu/malerus, malurus.

³⁵ Iraintzeko edo laidotzeko baliagarri direnak.

³⁶ Arabako sartaldeko komentua.

³⁷ Arabako Errioxako herria, Biasteritik oso gertu.

Hainbertzenarekin³⁸, euria hasi eta handik llabur zipaturik ginen zinez ari baitzuen, egundo halakorik!, zinez, sekula bezain gostuan. Urak, udabetea bezain bero izanagatik, freskatu gintuen, larrua hain bero genuen.

Horrat hor gu pozarren jauzi eta salto, irri eta oiho. Fuera arropa, fuera bikini -nik barneko arroparik ez- eta harat han hirurok uretarat buruz bertan pulunpatuak zipatuak segitzeko asmotan. Neskak lasterka, zale eta larden, pizkor.

Aro gogorki hitsa, euri eta lurrin. Ez baikenuen bertzerik behar!

-Ura epel dea?

-Bai, epel-epel duk.

-Nahi duanean.

Pulunp eginik, alegeraki ibili ginen igeri, hegian beti ere zer gerta ere urtegia aski perilos baita. Lehorrean nehortxo ez, nehortxo ez baitzen baratu. Zeini burura halakorik? Ezeini ez. Zeini burura euria hasi behar eta urtegirat buruz abiatzea? Guhauri!

Euri-lainoa nabarmena zen, freskagarri, ura bera baino are freskagarriago. Euria ezinbertzez egin behar zuen egun anitzez ekiak ongi dzdinkatua baitzuen. Lehorreratuak, goxo ginen, uros nintzen. Egin, egin zezala, segi zezala erruz, gogotik, goian-behean, zarra-zarra! "Alimalekoa!" Ordua arteko aroa arras ona, alafede, eta,

³⁸ Tupustean, dzanpez, derrepentean.

baitezpada, erautsia noizbait ekarri behar, eta bazekarren, ekarri ere. “Bota! Bota egundokoa, to! Zipa gaitzak nahikara nahikara hartzen ari baihaugu guk! Blai! Oro blai! ez ater!”

Belarretan etzan ginen; etzan ziren eta ni haien gainean. Metan ginen, lohitu. “Egon ala jardun?” Garbi zegoen: jardun behar, eta banindoan, joan. Amoroskeria eskaini nien. Elkarrenganako xera likitsa gure barneaz jabetu zen, ezari-ezarian, taigabe jabetu ere.

Denbora aitzinerat joan eta egin ahala ari zuen, ezti eta fresko. Gure poza! Loria! Biluz golli-golli nintzen llaguntsa maite pikarraituekin hirurok urtegian blai. Ametsa! Llaguntsekin hala.

Negurat gogotik biltzen naiz; alta, udarat, oi!, udarat gogotikago, harat, zinez gogotik: arropa guti edo bat ere ez, neskak antxume³⁹ -neskek bai arropa guti, arras guti edo batto ere ez, to! Udan egun dorperik ez. Ez, ba. Euritsu bai ote? Ongi etorri euria, lur usaia eta freskura.

Ttanttak sendituz askatua ere ari nintzen senditzen. Xoria bezain alegera, bake eta sosegu zoriontsuaz gainditua nintzen. Tarteka-marteka lagunei so egiten nien. Izan, ene bihotzeko berezi-berezi dira, iduri zinez sustagarri, grazia ezin prezatuzko.

³⁹ Zangoen gainean, urttuxirik, ortozik, oinutsik, hankutsik.

So ari nintzaien, ari. Larrujoile jarraiki, amorratuak ditut. Udaldian batek badaki zenbat aldiz egiten duten gainez. Hamaikatxo aldiz, ori. Ene gostuko nahiz bertze batzuek gostuko, ahal duten ororen gostuko, hobeki erran. Gutik egiten die muzin eta zaputz, hain baitira xalo, sotil, sinple, plazent, erakargarri eta maitagarri. “Ai, enetxook!”

Loa ene hartzerat gogo onez utzi nuen; bere baitan ametsetan segitu. Lur hutsean ginen, baina horrek ez zuen muntarik. Halaxe nahi baikenuen, halaxe behar baitzuen.

-Gose zaretea? -Ibabeak betan belauniko emanik.

-Ez.

-Bo...

-Hi?

-Hurrana. Lekuak hustuko?⁴⁰ Airatuko?

-Bai.

-Bai, egungo aski ukan dugu.

-Arren, ox⁴¹.

⁴⁰ Joango.

⁴¹ Goazen, ba.

Ekiak ekiari⁴² aski izanak, tenore zen lekuak hustu genitzan eta hustu egin genituen oskiak soineratuak, arropak aldean, biluz-golli-golli. Autotik hurbil, haiek bikiniak jauntzi zuten eta nik prakak.

“Milatan zaituztet erremestiatzen⁴³, neskok! Zernahi zoko-moko utzi nauzue ttuztatzerat. Karrikarat edo so egitetik baratzen ari ez zen pareko neska lagun.” Batzuetan pentsatzen dut lurrerat eror daitezkeela hil gogor eta halako hotzikarak nau inarrosten, hogenak⁴⁴ bereganatzen. Hain ditut maite, halako lotsak⁴⁵ zafratzen nau. Tatxarik gabeak direla izkiriitzen banu, gezurter eta pilardit⁴⁶ nintzateke. Izanez ere, tatxa anitz baitute: Anek maite du izerdi-zurrustaka delarik uzkian hatzak ibili eta berauen usaina aditu, eta gustatu ere bai “Zapore gazia die”. Ibabe gostu-gostuan ibiltzen da etxean tsintsak pur-pur-pur⁴⁷ marranta galantak atzemanez gero.

A, zer oren gozoak haien ondoan pikarrai! Bake oso eta maitasun handia. Estonatzekoa⁴⁸ da funtsean zein zoriontsu naizen, zein trankil dudan bihotza, sabela, hunak, zeinen kikildua dolorea. Haiei esker. Ametsetan sartu behar nintzateke, utzikeria polita litzateke biziki. Ametsetan sartu, kontzientzia guziz galdu eta kito. Haiek dolorerik ez ni ez bainintzatekeen izan edo haiek ez baitziratekeen. Eta hala akabo, fini, sortu izan ez banintz bezalaxe. Biribila litzateke, guziz.

⁴² Eguzki-galdatan.

⁴³ Erremestiatu: eskertu.

⁴⁴ Erru.

⁴⁵ Beldur.

⁴⁶ Gezurter, gezurti, mardailer, petart.

⁴⁷ Mukiak sudurtzulotik zintzilik, haurrak bezala.

⁴⁸ Harritzekoa, txunditzekoa.

GIBEL-SOLASAK

Banuen fantasia batto: udabihotzean, gogoko bi neska biluzle⁴⁹ ezagutuko nuen, etxerat jinen ziren, pikarraituko⁵⁰ ginen zabaltzan⁵¹, harraskan kokaraziko ninduten eta bertan ureztatuko, halako erauntsiagatik autoz urtegirat buruz abiatuko ginen, euritan blai pikarrai eta bainatuko, euria oraino eginen zueino belarretan etzanen ginen, gosetuko eta autorat itzuliko... Nekeza gertatuko zitzaidan, ezinezko, eta ezin sinetsia.

Alta⁵²...

“Oraino eta luzaz irus⁵³ izanen nuk. Hala biz!”

2000ko martxoaren 3a
(1976koa⁵⁴ gogoan)

⁴⁹ Biluzten dena edo duena.

⁵⁰ Biluzgorritu.

⁵¹ Etxeko terraza.

⁵² Hala ere.

⁵³ Zoriontsu.

⁵⁴ 1976ko martxoaren 3an, Gasteizko Zaramaga auzategiko San Frantzisko elizan nahiz ondoko plazan grisek bortz langile hil zuten.

Erretratuak egiteko baino ez naiz bizi

Josu Unzueta

Nire erkideek behartua, hemen bizi naiz, herriko parkean, izarpean, lili eta zuhainez inguratua.

Urteen joan-etorriarekin, txoko honetan gertatzen direnak buruz ikasi ditut. Begiak itxita, iretargia ikusten dut, ortzeko pristia izarjale hori, bere nabigazio gorrian. Belarriak zur, gauaren arnasa pausatua entzun ohi dut, eta haizearen ufakoa, hodei saldoak eta hegaberen hegaldia bulkatzen. Txirri-txirri eta ugaraxoen kantuekin lokartzen naiz, epertargiak lagun. Eta, sarri, ipar-lausoaren izara bustiak inguratzen nau, maitale isilaren antzean.

Egunabarraren laztan epelak iratzarrita, beste egun baten taupada biziak igartzen ditut, gero eta ozenagoak. Laster, kaleargiak amatatuaz bat, herria hanka biko txindurriz beteko da, nor bere otapurren bila. Eta ni berton, talaian.

Gizakiok, denboraren poderioz, zer bi baino ez ditugu metatzen: urteak eta antojuak. Apetak. Zahartu ahala, gainera, mania bihurtzen direnak. Bezeroaren aurrean burua apur bat apaltzeko jasa zuen zerbitzari hari gertatu zitzaiona legez: zaletasun hori keria bihurtu zitzaion, eta zahartzaroan makur-makur eginda ibiltzen zen, burua hankartean.

Niri ere berdin. Lanbidez argazkilari izan naiz, eta orain, erretiroan, jendearen erretratuak egiteko baino ez naiz bizi. Begiratoki honetatik, barrez, ez dut kameraren beharrik inguruko gizakien argazkiak egiteko. Bai, nire begi zorrotzek laratro isilen

antzean egiten dute behar, aurrean paretan denaren erradiografia egiteko. Begiratu batez, beldurrak eta grinak irakur ditzaket, hala gogoetak nola gomutak.

Mundua ez da dirudiena. Seguru nago eskolan kontatu zizkigutenik asko ere guzur huts direla. Paradisuarena, esaterako.

Nire kameraren begiak diostanez, hauxe jazo zen atsegin-baratz horretan: baldin inoiz paradisurik izan bada, beraren kukutzean, hasieraren hasieran, arbola bat zegoen. Sagarrondoa. Suge bat hurbildu zela, arbolaburutik gizaki batek egin zion berba:

-Hartu egizu sagar bat, geben-fruitua da eta.

Sugeak sagarra jan zuen, itxura ederrekoa baitzen.

Harrezkero, sugeak paradisutik at bizi dira, eremu-basoetan, sastraka artean, eta galarazota dute fruituak jatea. Endemas gorrak dira, gizakiaren burubide galgarriak entzun ez ditzaten.

Horrelakoxe guzurrekin bizi gara denok. Goizero nire aurretik pasetan zen gizona legez. Dendari umila izan arren, txakur-ametsak egiten zituen arratsaldero, parkeko jarleku baten jesarrita, denda itxitakoan. Txokor bat ezpain artean, ez zen konturatzen bere ametsak ahotik botatzen zuen kea bezain ezdeusak zirela.

Egun baten, bere etorkizuna inoiz baino zoriontsuagoa zekusala, txokorra izetu eta auto zaharrera abiatu zen, negozio gizon batengana joatea deliberatuta. Ez dakit

zenbat diru eskatuko zion, denda handitu eta txukuntzeko. Handik aurrerakoa, aldats beherea baino ez zen izango, jakina. Koittaduak ez zekien patuak beste zeozer prestatua ziola: kale-kantoi baten ostean negozio gizon horrek gidatzen zuen autoarekin egin zuen talka. Burdina artetik atera zuten dendariaren gorpu sakaildua, bere ametsak afrontuak eta euri-truixuak deseginda.

Parkean bizi izanda, bertatik ikusten ditudanekin erretratu bilduma itzela egin nezake. Erretratu bakoitzaren barruan, endemas, mundu bat gordetzen da, sarri gurea baino bitxiagoa. Parke aurreko etxeetan bizi zen gazteari jazo zitzaiona, kasurako.

Balkoian zegoen, eguzkitan, begiak itxita. Alboan zuen irratiaren musika goxoak kulunkatuta, erdi lo zegoen. Halako baten, ostera, musika eten eta ahots sakon bat entzun zuen, berari deika legez.

“Txist! Txist! Bai, hi heu, itzartu hadi! Zer, bazkalondoko nagiak harrapatuta ala? Hara, musika ezti horren ostean nire txanda duk, gazte! Badakik zertan nabilen? Margoihal bat pintetan, horrexetan. Jakina, hagoen lekutik, irratiaren bestaldetik, ezin duk ezer ikusi, baina imajinatu egik margolana, zelan noan oihal zuriko ezerezetik unibertso bat sortzen. Lehen planoan, estatua bat. Honen atzean, zuhaitz batzuk, loratan. Bai, saiatu hadi imajinetan nire pintzela arin mugitzen. Oraintxe bertan uso bat pausatu duk estatuaren gainean, eta, badakik?, pintzelaren mugimendu bizkor batez harrapatuta geratu duk nire irudian, dagoeneko ezin dik alde egin. Bai, hasi haiz konturatzen, entzule hori, margolari berezi samarra nauk, abilezia arraro hori diat, errealitatea xurgatu egiten diat, nire margolanetara ekarri...”

Gazteak, balkoiko etzaulkitik erdi jagita, irratuari begiratu zion, mesfidantzaz. Berba haiek, itxura, artegatu egiten zuten. Baina irratiko ahotsak bere berba jarioari ekin zion.

“Tira, gazte, ez hadi larritu. Gura baduk, estatua oihaletik ezabatu egingo diat, horrela uso hori aske geratuko duk, nire margolanetik urrun. Hara, ikusten duk berriro ere hegan? Baina oraindino ez diat neure lana amaitu, ez. Atzealdeko etxe horiek pintatuko dizkiat. Azken pisuan andre bat zegok, lehortutako arropa batzen. Bai, esan diat oso arina naizela, dagoeneko nire oihalean zegok. Haren azpiko etxeako leihoak itxita zeudek, hutsik egongo ote? Eta... eta azpiko etxean, amigo, sentitzen diat esan beharra baina... azpiko etxe horretan heu hago, bai, heu, etzaleku horretan, irratuari harritu aurpegiaz begira. Dagoeneko nirea haiz!”

Harrezkero ez dut etxe hartaruntz begiratu. Badakit pintoreak eroan zuela, besapean, oraindino pintura lehortu barik zuen margoihal hartan harrapatua.

Neu ere parke honetan harrapatuta nagoen legetxe. Hementxe dago nire erbestea. Eta, erretiratuta egon arren, nire betiko beharrari lotzen natzaio, jendearen erretratuak egiteari, horrexetan egin nintzen ospetsu eta.

Eurekin berba egin ez arren, halako adiskidantza daukat parkera etortzen diren batzuekin. Nire ondotxoan jesartzen dira, halako moduan ze euren bihotzen taupak nireak balira legez entzuten ditut.

Gogokoen dudan horietako bat agure bibotezuri burunahastua da. Bere artean ibiltzen da, marmarrean, bere bizitzako gertaerak behin eta berriro gogoratuaz. Gehien errepikatzen duena bere anaia bikotxa desagertu zenekoa da, zortzi urte zituztela.

Orduan hemendik urrun bizi ziren, menditzarren artean galdutako herritxo baten. Bertako etxeek lur azpitik hazitako troska ikaragarriak ziruditen, neurri eta itxura desberdineko leihoz josiak. Horrelako baten zegoen bere anaia, zeruari begira, azkenengoz ikusi zutenean.

Leihoan dago anaia, hegan datorkion mitxelotari begira. Konturatu orduko haren atzean da, basoan, etxetik urrun. Mitxelotak, astigar baten abarretik, berba egin dio. "Ni lehen izaki nazkagarria nintzen, itsusia. Orain, nire edertasunak liluratu eta etxetik jalgiarazi egin zaitu. Zu, berriz, orain txikia zara, azala fin-fina eta zimurrik gabea duzu. Ederra benetan zure begirada berdea! Baina aurpegi hori zimurrez beteko zaizu, ile beltz hori urdindu, esku leun horiek zakartu. Lepoa okertu, haginak jausi eta betazpiak han ditu egingo zaizkizu. Ez nazazu, bada, harrapa! Edertasuna ezin da koaderno batean orratz batez josita gorde."

Etxean ama negarrez da. Bere umetxoa ez da ageri, eta erreko putzuren baten itoa imajinatu du. Gaua heldu da, umerik ez.

Goizean etxeoak eta inguruko auzoak ere haren bila irten dira. Errekan gora eta behera ibili dira, gero basoruntz jo dute. Lorratzik ez.

Bitartean, beste etxe baten, beste ume bat, leihoan pausaturiko mitxelotaren ederraz maitemindu da, begirada berdea duen mitxelota liluragarriaz.

Agure bibotezuriak modu berean kontaktzen ditu beti gertaerak, jazo berriak balira legez, bere begi berdeetan bi mitxelota kaiolaturik. Neu ere gatibu. Aske nahi nuke, mendirik mendi. Baina ez. Hementxe ditut sustarrak.

Astiro-astiro, eguzkia, ortzera jaurretako suzko goronbil hori, hodeiertzeruntz abiatzen ari da.

Parkea hutsituz doa. Han-hemen, gazte bikote bakan batzuk baino ez, zirri eta barre. Horientzat denborarik ez. Elkarren geografia miatzen dihardute, bihotzen taupada eroen mende.

Haize gorria altxatu da. Haizeak, alegia zaharrak munduaren zurkulu batetik bestera eroaten dituzten txalanda horiek, nire adiskiderik kuttunenak bilakatu dira. Zenbat istorio ez dizkidate xuxurlatu!

Haize gorri honek, esaterako, sarri kontaktzen izan dit ipar-muturreko elezahar tristea. *“Iparraldeko lurralde zabal hotzean -hasi ohi da haize gorria, bere ahots lakarrazbertako lagunak gaitz larri baten beldur dira. Neguko gau luzeetan -han neguko eguzkiak ez du ia argitzen- etxeke ateari giltza eman, leihateak trangatu eta lotara belarri zuloak kotoiz estalita joan ohi dira. Kanpoan gauaren errege den Otso Zuriari diote beldur. Ez edozein otso zuriri, aldika agertzen den Otso Zuri Handiari baino. Gaueko anima bakartien lorra darama berarekin, eta ezin da inon geratu.*

Neguoro Iparraldeko lurralde guztia zeharkatzen du, pausatu ezin den hegabera baten antzera. Eta gauez haren ulu negartia entzuten duenak ez du berriro argiaren begia ikusiko. Alegiak dioenez, uluak badu ahalmen berezia lo dagoena ohetik altxarazi, etxetik atera eta iluntasunean betiko desagertarazteko, ametsetan entzuten ari den kantu liluragarriak erakarrita. Eta gau jakin batzuetan, Iparraldeko lurralde hotz hartan, ostargi-gorria ikusi ohi da ortzean. Otso Zuriak harrapatutakoen arimak dira, goialde hartatik beren etxetxoei begira, ohetik jalgiarazi zituen kantu liluragarriaren mendean dantzan.”

Ez ote dago niretzat berarekin eroango nauen ulu magikorik? Zer bekatu egin dut, hemen egotera derrigortzen nauena? Ikuspegi berbera erretratatzera zigortutako argazkilaria naiz. Baliteke zorigogorrekoagoa izaterik? Zer maitasun eman diezadake kaiolaren askatasuna eskaintzen didan maitaleak? Ez, nik aske behar dut.

Behin hegoaldeko haize zuriak kontatu zidan artzaintsaren istorioan legez, ez dago ni gatibatuko nauenik.

“Hara -esan zidan haize zuriak, bere ahots eztiak- zu jaio baino ehun bider ehun urte lehenago, Ararat zeritzan lurraldean, bazen sendi aberats bat seme bakarra zuena, Haffat izenekoa. Zer nahi, hura lortu. Horrela hazi zen, gosea edo estuasuna zer diren jakin gabe.

Behin, mendi aldean zebilela, zarata bat entzun zuen. Lasterrera artzaintsa bat agertu zitzaion, bere artaldearekin. Hain zen ederra, ikusiaz bat maitearen minak harrapatu zuen.

-Nor zara, ederrenetan ederrena?

Neskatoa, mutila ikustean, gorritu egin zen.

-Ikusten duzu, jauna, artzaintsa bat besterik ez.

-Zure ardi guztiak eta ehun artalde gehiago erosteko beste diru dut nik. Non da zure aita, eskua eska diezaiodan?

Neskatoak, burumakur, apalki erantzun zion.

-Basamortuaren ostean beste ehun basamortu zeharkatuta ere ez zenuke aurkituko.

-Ba, orduan, etor zaitez nirekin. Andrerik zoriontsuena egingo zaitut.

-Haizea ezin da kaiola baten barruan gorde. Nire bihotza ere halakoxea da, jauna, aske behar du.

Haffat ezetz horrek sumindu egin zuen.

-Lortuko ez dudan gauzarik ez dago lur azalaren gainean, maitea. Nahi edo ez, nirea izan behar duzu!

Artzaintsak burua jaso eta begietara egin zion so.

-Nire gorputza kateaturik eroan zeinke, baina nire bihotza beti aske izango da.

Haffat bigarren ezetzak bere onetik atera zuen. Ezpata eskuan, mehatxu egin zion.

-Zatoz nirekin, edo bertan hilgo zaitut!

-Hil nagizu, bai, atera egidazu bihotza eta lurperatu egizu. Baina jakizu, honegatik, zu eta zure ondorengo guztiei negarra eragingo dizuedala.

Gorrotoak itsuturik, neskatoa hil, bihotza atera eta lurpean ezkutatu zuen.

Egunak joan, egunak etorri, Haffat neska hil zuen tokitik igaro zen halako baten, eta ezagutzen ez zuen landare bat ikusi bihotza lurperaturik zegoen bazterrean. Errotik atera eta hara zer ikusi zuen: azal gorrixka zuen erraboila.

-Nola erne daiteke bihotz lurperatua? Txikitu egingo dut! –erabaki zuen amorraturik. Labana atera eta erraboil hura zatikatu egin zuen.

Atoan, begiei itsaso bat malko jario zitzaien, eta harrezkero kipula bat txikitzen duen oro negarrez hasi ohi da, egiaz artzaintsa ederraren bihotza ziztatzen ari baita.”

Badator gaua, ortzean izarñoak izetzera datorren emakume soineko beltz ederra.

Beste egun bat igaro da. Azkena, ostera. Bai, burubiderik gaxena hartu dut: alde egitea. Nire bihotz artegatuak trapaladan gura du hemendik urrundu, beste paisaia batzuk ikusi, beste erretratu batzuk egin...

Gaua lagun, lotzen nauten kateak eten eta betiko desagertuko naiz, ume haren antzera, tximelota liluragarrien atzean.

Edo ez. Biharamunera arte itxarongo dut. Horixe izango da nire mendekua. Isilpean eta ezkutuka barik, denon begi aurrean egingo dut. Behingoagatik, neu izango naiz erretratatua, neu begi eta kamera guztien jomuga.

Parkea jendez beteta dagoenean, idulkitik jauzi egin eta lasterka hasiko naiz, zantzoka, egundokorik zoriontsuen, inguruko harriduraz gozatuz, argazkilariaren estatua zaharra arrapaladan zelan urruntzen den zurturik begiratzen dutela.

Hildakoaren solasak

Luis Mari Mujika

Fermin Olaskoaga zurgina, pinuz eginiko hilkutxa bizkarrean duela, sartu da gelan. Kaxilda neskameak baldarki itxi dizkit begiak. Hala ere, ezkerreko begiaren betiletatik, sare mehe baten zehar gisa, inguruko mugimendu, aiene, sasi-negar, errezo eta beste katramilak jarraitzen ditut.

Kaxildak ispilua hurbildu dit ezpainetara, oraindik arnas aztarnarik ba ote dudan ziurtatzearren. Ispilua ez da zipitzik lurrundu. Bai, ongi hila nago ene neskame eta ingurukoentzat...

Eguzkiaren izpiak bertikalki sartzen dira gelako goi leihotik nire betarte, kokots, bular, sabel, belauburu eta orkatiletara, argizko tira bitxiak marraztuz. Argi-unetan nabarmen gelako hautsa, eta xomorro eta eulien hegadak.

Itxuraz, oso serio eta zurrun gelditu naiz hilda, ezen bisitariek halako muzin bat egiten dute ni ikustean, aitaren baten imitnzioa egin ondoren. Xingola dut loturik hanketan, eta zapi zuria kopetan. Joxepa Sastrenekoa, Leona Arriolakoa, Anastaxia Istilletakoa eta Madalena Albarorenkoa (aih, nere ametsetako Madalena kuttuna!) hemen daude alboan arrosarioa eta letania zaluak latinezko ele-mele gaitzetan esaten

Urbedeinkatuzko edalontzia ere, barruan erramu-orria duela, aldamenean daukat. Anastaxiak ur-tanta ugariak bota dizkit gorpu gainera astitsu. Kasu, tanta bat ezkerreko begira erori zait, bestea sudurrera. Sudurrekoak azkura gisako ukitua egin dit (“Nolatan azkura? Zer esaten ari naiz... Ez al nago, bada, ongi hilda?”).

Madalenak, berriro, ene galtzetara so egin du. Itxuraz, eztaietan jantziriko galtza beltz-urdinok oraindik aspaldiko arraia mantentzen dute. Madalenarekin ordeztuz, Iñaxirekin ezkondu banintzen ere, nire lehen andregai paregabea Madalena izan zen. Berak ongi daki... Madalenak zenbatetan ez zizkidan, emaztearen ezjakinean, bere izter limuriak, bular oparoak, beso luze-linealak, kadera sentsuala ukitzen utzi... (“Baina, zertara datoz oroi guzti horiek orain ongi hilda banago?”).

Fermin zurginak ene gorpua zerraldoan astokiro sartu du. Ez izan dudarik Fermin beti asto izan dela bizitza guztian. Une honetan ezin zitekeen bestela portatu... Itxuraz, nire eskuek ez dute kaxa beltzean eroso sartu nahi izan; ezta oinek ere, zurgin astazakilak jo egin bainau galtzarbetan eta ezkerreko saihetsean gorputz nirea hertsatu nahiaz.. Kolpe batez behartu dit soina zerraldora, hankaz zapaldu ene zilbor gaina sabela hazita daukadalako. Zurginaren aurpegiak “alu honek, hilda ere, setati eta kaskailu jarraitzen dik!” esan bide du... Betazalak bere hatz baldar eta lodikoteez berritxi dizkit. Astoa!

Euli batek nire kokotsetik leporako bidea korritzen du. Gero sudurzuloetara igotzen da, eta ondoren ezker masailako arrasto itsusiaren zimurretan gelditzen. Berriro, azkuratxo bat edo susmatu dut... (“Baina, zelatan azkuratxo? Ez al nago bada ondo hilda”).

Gelan mater amabilis, mater admirabilis, mater boni consilii gisako otoitzak entzuten ditut nagi. Ur-bedeinkatuzko zipriztinek orain nire zerraldo-oholak bustitzen dituzte (“Madalena, zu bai zinela maxusta eta dultzea... Zelako astinaldiak sentitu zenituen nirekin!”, “Ia beti gona urdinez jantzia hurbiltzen zintzaidan”, “Hatzak zuriak

zenituen, masailak sagarraren usain basatiz, ezkerreko diti ondoan niretzat apartekoa zen orina zeneukan...”, “Iñaxi nire emazteak (Jainkoak zeruan ukan dezala!) ez zuen jakin, ezta susmatu ere, nik biluzik ezagutu zintuala”, “Emaztea ez zitzaidan inoiz biluzik argitan entregatu...”, “Madalena, zu bai, ordea!”).

Hilkutxaren zirriztu batetik ikus dezaket orain Madalenak sila nolatan hartzen duen, eta esertzen den. Hemendik errepara ditzaket bere belaunburu sendoak, izter zuri-zoztorrak, kaderaren limuritasuna. Madalenak, oraindik berrogehita zortzi urte baino ez ditu, eta xarma ederreko anderea dago (“Ze koño hil naiz, bada, hain goiz...?”). Anastaxia, letaniak amaituta, Oremus, concede nos famulos tuos, quaesumus... delakoa murmurikatzen hasi da latinez, nahiz hizkuntza jakin ez, esaera zaharrak dionez. Ingurukoek, beste behin, Ur-bedeinkatua bota didate hilkutxa gainera.

Ondoan entzun dudanez, goizeko bederatzi eta erdiak ziren hil nintzenean. Estanix, ene iloba, arrosario bukaeran azaldu da. Kaxildak berehala pentsatu du: “Gazte arraio honek, ze kristo egiten din hemen, osaba ez baitin azken bost urte hauetan hiru bider ere bisitatu...!”, “Itxuraz, heredentzia usnatzen din urrutitik. Heredentzia osoa, ordea, nerea dun, bere neskame leiala urte anitzetan izan naizelako...!”.

Estanix ilobak Kaxildari hilkutxa irekitzea agintzen dio, osaba maitea azkenekoz ikusi nahi duela eta. Kaxildak amorrazioz so egiten dio, baina esana betetzen.

Zerraldoaren tapakia jasota, ilobak ene betartea ikusiz:

- Osaba sano hilda dagoela uste al duzue? Ahoa zerbait irekia dauka; ezkerreko begian halako irriñoa du.

- Letxes! Isilik egon hadi! Nola egonen duk bizirik! Nik bart eman nion belar-katilukadaz, prezeski, nahita ez, hil beharra zeukean.

- Zein belar-katilukadaz? -erantzuna ilobak. Kaxildak mantalaren ertza pasatzen du ezpain zimurtsuetatik-. Noski, nik emanikoa ziurri eta irakabelarrez eginiko edaria (“Besterik ez zian merezi... Aluak, hainbeste urtetan berari zerbitzen egon eta diru guztiak parrastatu dizkik Madalena eme lizun, bargasta, urdanga horrekin”, “ Ez zegok eskubiderik horretarako”, Hiretzat ere ez dik deus utzi...”). Elkarrizketa, noski, Kaxildak ilobari pasiloan egin zion, beila-gelako atsoek eta Madalenak ezer entzun ez zezaten.

Orain salvea eta kredoa Aita Santuaren asmoetara errezatu dituzte Anastaxiak eta beste atsoek, errezoen murmurioa gelako isilunean adierazgarriagoa eginez.

Niri gaur, hil ez banintza, ferira joatea tokatzen zitzaidan zekorra saltzearren. Diruaz Madalenaren gutxia bereziak beteko, nituen, baina alferrik izan da guztia... Oraindik ez dakit, bada, garbi hil naizen ala hil nauten... Kaxildak herenegun eginiko taloa primerakoa zegoen; oraindik areago txorizoa, baina bart gaueko belar-zukua ze mikatza eta arraroa zegoen...

Une batez, Eternam habeas requiem eta Absolve, quaesumus, Domine, animam famuli tui... gisakoak entzuten ditut sotana luze eta beltzez jantziriko gizon baten ahotik. Negar-zotin batzuk ere aditzen dira ene ondoan.

Nire emazte Iñaxi, azken urteotan, urritz-makila bezain zimela zegoen. Oherakoan ez zituen galtzerdiak kentzen, ezta azpigona. Ni oraindik gizon sendo, bortitz, osasunjario nengoen. Orain, berriz, zurrun eta mugiezin (“Nola ez haiz egongo, bada, leloa? Ahantzi egin al zaik guztiz hilda hagoela eta ezin haitekeela mugi...?”), “Esan, zergatik lotu dizkidate xingolez oinok?”, “Zer uste dute, behin hilda, ostikoka, hasiko naizela?”, “Besoak, belaunak, hankak tenk dauzkat... Begietan dabilkidan euli aspergarria ere ezin dut uxatu...”).

Madalena, orain, kadiratik zutitzen ikusten dut. Nire heriotzak. ez dio galdu ohiko xarma eta kolorea Ausaz, herentzian du amets.

Badrudl alproJa naizela dioela bere arrimoan ia dena parrastatu dudalako (“Gizon bezala ez du inoiz aparteko baliorik izan... Eskasa izan da”). Bera ere haserre da nerekin. Aski da bere ezpainetan erreparatzea. Ze muzindura!

Iñaxi zenak, berriz, beste mundutik (ni, orain, itxuraz, bi munduen erdian natza...) “erruki haut” dasaida. “Nora joan haiz hortik barrena arima erratiaz?”, Sukaldean, ukuiluko ganbeletan, teilatu ertzean ibiltari sumatzen diat hire arima...”, “Noiz hator hona?”. Pater noster qui est in coelis...

Leioa irekitzen da, bat-batean. Haize-bolada zakarra sartzen da. Nire hilkutxa ondoko bi kandela. itzali dira. Leihatiltan kolpetxoak, kristaletan dardarizoak entzuten dira. Panem nostrum quotidianum da nobis hodie...

Paisaiaren lilura ez da apaldu ni hiltzeagatik... Zuhaitzak orritan, zuhaixkak ihintzetan, atariko jeranioak loretan daude, beste egunetan bezala. Behin eta berriz esan nien, bada, Arizkondietako haritzei ni hileta-egunean makurtu egin behar zirela; berdin jalgi nion bideko ezpondari -alegia, leherturik, lurrera etorri behar zuela, eta Latseta errekarari uholdez gainez- ka egin behar zuela-. Lepazuri behiari nire ehorte-egunean esnerik ez emateko ere iragarri nion; gaur, ordea, hamabi litro-esne hustu ditu pertzara. Denak eskergabeak, sentimengabeak izan dira nirekin...

- Madalena, masusta horrek, esaiozu Lepazuriri bihar, gutxienez, esnerik ez emateko. Berdin diotsat Latseta errekarari; urak plazaraino bota ditzala herritarrek “zergatik da hau guztia?” galde egin dezaten. Eta neskameari: “Kaxilda, ezln dut iksui atarlko intxaurrondoa lehen sendo eta orritsu... Edonork esanen du etxeko nagusia, hilda ordez, ezteietan dagoela”.

Orain Leona Arriolakoa zutitzen da, elizarako bidean jartzearren. Azkeneko doluak ematen ditu. Nori, ordea? “Sentitzen dut biziki” Madalenari, begiak ia lurretik jasotzen ez dituela. Eta, gero, ezpainak apenas mugituz, murmurikatuz bezala, bere gisa isilean: “Alferrik zaude errezatzen, Madalena”, “Orain ordaindu beharko ditu zerraldokoak zurekin eginiko ohakeria guztiak. Ziur nago Iñaxi emazteak ez dizkiola barkatuko mundu honetan eginiko ezkontza nahasteak...”.

Madalenak haserre bezala so egin dio atso lotsagabeari, 111':yz pentsatua susmatu bailion. Leonak berriro:

- Ohartu naiz leioa haize-boladaz zazpi aldiz ireki dela. Iñaxiren arima ingurutik dabil, antza .

- Ferminen arlmak ez du atsedetik -oraingoan Joxepa Sastrenekoak bere baitan-. Zuen bekatua desestali da. Haragikeria lizunak ez ezik, Ferminekin odolkidekeriak egin dituzu, Madalena, Ferminen arreba borta baitzara. -Infernua merezi duzue. Zuen bekatuek nekez ukanen dute Jainko handiaren barkaziorik, senideen arteko haragikeriaz anaia kondenatu duzulako betiko... Irten zaitetz gela honetatik, joan zaitetz hemendik Intxisuren kobazuloraino.

Madalena zurbil jarri da, hormetako karea baino zuriago. Berehala ohartu da bere anaia naizen honekin eginiko bekatuaren ikaragarriaz, eta negarrez hasi da.

On Prudentzio apaizak azken aldiz sartzen du hisopoa ontzian, eta ur-igurtziak nire zerraldora eta inguruko sudurretara banatzen, errezo ulergaitzak esanez.

Segidan, inguruko hiru gizon sendokote eta iloba Estanix nire hil-kutxa astuna mugitzen, eta besagaintara altxatzen, hasi dira elizarako bidean. Madalenak, zinez, aurpegi txarra dauka, gelako gehienek igarri dituztelako Leonaren salaketak. Nik, noski, banekien Madalena nire arreba borta zela, baina, berak ez... Horregatik ez du egin intzestozko bekatuak, ezjakinean zegoelako.

Azkenean, elizarantz naramate. Bideko potxingoetako igelek kantua eten egiten dute ni igarotzean. Kaxildak, dagoeneko, teilatutik kendu du teila gorria nire arimak goiko bidea erosoago dezan, baina nireak ez du irtenbide egokirik izanen zerurantz. Bekatu larregi egin dut bizitzan. Iñaxi engainatu dut. Baita Madalena gajoa ere.

On Prudentzio apaizari sermoian Jainkoa aita dela esaten entzuten diot, eta gizonen bekatuak, burdin gorria bezain gorriak izan arren, Jaunak guztiak xahutzen eta zuritzen dituela bere urrikalmendu azken gabea... Nik lehenengo aldiz, esperantza apur bat sentitzen dut, eta kanposanturako prest jartzen -lurretik sortua naizenez lurrera itzultzearren behingoz-.

Perizene baserrian Kaxilda neskame gajoa bakarrik gelditu da hiletara joan gabe, bazkaria bost apaiz eta hamabi ahaideentzat prestatzen.

Zergatik? Hargatik

Julene Idoate Legorburu

San Martin egun honetako ekiak bidalitako lehen printzek esnatu naute, udazkenean noizbehinka suertatzen diren egun epel eta goxoetako batean. Bakarrik nago, lau pareten artean. Hori izan da azken gogoeta hau burutzeraz bultzatu nauen aitzakia. Dagoeneko badira hiru urte presondegi honetan nagoela. Ez naiz gustura sentitzen, baina ezin esan dezaket hemen jasotzen dudan tratua ona ez denik.

Aspaldi batean, aske bizi nintzen, askatasun osoz, askatasun osoan nire lau neba-arreba eta amarekin batera. Bizkaiko herri txiki batean bizi ginen, Arrazolan hain zuzen, euskal mitologian hain esanguratsua den Anboto mendiaren magalean. Gure bizilekutik, lehen argi printzak ikusi ahala azaltzen zitzaizkigun goizero begien aurrean Memaia, Anboto, Udalatx, eta Alluitz. Gaur egun jende askok baserriak zikinak eta deserosoak direla uste du, baina uste ustel hau alboratuta, esan beharra daukat gurea guztiz bestelakoa zela: ikusgarria zen. Handia, txukuna, eta ondo zainduta zegoen. Etxearen eskuinetara, ortu handiak okupatzen zuen hesiz inguratutako lur-eremu zabala; ezkerrean ordea, belardi txiki bat zegoen animalia batzuen atsedeen leku gisa; eta etxe ostean, ez dakit zer zegoen, ez bainintzen inoiz bertan izan.

Pozik bizi ginen etxalde hartan. Goizero, oilarraren kukurrukuak esnatzen gintuen, baina beste lau neba-arrebak eta bostok, beste egin beharrik ez eta etzanda gera eta ama gure bistatik eramaten zuen, baina inoiz ez dut jakin nora eramaten zuen egunero, gehien gustatzen zitzaiguna egiten ari ginenean hain zuzen.

Gogoan dut nola udazkeneko egunsenti gris eta triste batean, esnatzeaz batera konturatu ginen Txato (izen hori jarri zioten bere sudurmotza zela eta), nebarik zaharrena, ez zela gure ondoan. Berehala harritu ginen guztiok, baina ordurako ama, bere bila ari zen. Etxe osoan bilatu genuen baina ezer ere aurkitu ez. Ama berehala jabetu zen gertatzen zenaz baina, guri ezer esan gabe kantoï batean etzan zen goibel-goibel. Ondorengo egunak triste samar pasa genituen, baina amak lasai egoteko adierazten zigunez, pixkanaka tristura pasa zitzaigun eta antzinako garai zoriontsuetara itzuli ginen. Udazken goibela pasa zen, baita negu zuria ere. Zuria benetan urte hartako negua! Aspaldian ez zuen horrelako elur jararik bota. Ordu gehienak lotan pasa genituen eta horrela ez zenetan, denak ondoan, hurbil-hurbil, hotzari aurre egin nahian. Laster etorriko zen baina udaberria, eta berarekin batera, baita alaitasuna ere.

Uda pasa eta udazkenean sartu ginen ia konturatu ere egin gabe. Urte bete iga-roa zen neba desagertu zenetik. Hara nola egun horietako batean esnatu eta Zipi, nire ahizpa, ere ez zegoela konturatu ginen. Neba-arrebok, aurreko desagertzean baino beldur, harridura eta tristura askoz handiagoa sentitu genuen. Bigarrena zen! Guk ezin genuen sinetsi, baina amak ordea, ez zirudien, ez beldurtuta, ezta harrituta ere, bai ordea, triste-tuta. Txato joan zitzaigun egunean etzaten zen kantoï berean etzan zen oraingoan ere, gertatzen ari zena ulertuko balu bezala. Honi buruz amari ezin izan genion ezer galdetu, ezin izan genuen.

Ordutik aurrera ez ziren gauzak lehen bezalakoak izan. Ez ginen hain zoriontsu bizi. Ama goibelduaren ahotik ez zen irribarre bakar bat bera ere ateratzen eta nagusia ere ez zitzaigun lehen bezain bestetan gure etxean agertzen.

Urte batzuk geroago baina, Zipi desagertu zen garai berean, nire bizitzatik kendu zizkidaten geratzen zitzaizkidan neba biak. Gero eta harrituago eta beldurtuago nengoen ni, baina hala ere amari ezer galdetzeko ahalmenik gabe. Oso triste bizi izan ginen ordutik aurrera ama eta biok, bakarrik. Jateari utzi nion, jada ez nuen bizitzeko batere ilusiorik, nire neba-arrebei gertatu zitzaaien igarkizunarekin bizi nintzen eta. Ez nintzen nire txokotik ezertarako mugitzen. Jan, justu-justu jaten nuen beharrezkoa. Amak ez zidan kasurik egiten. Horrela, hotz ikaragarria egiten zuen arratsalde batean, nagusiak gure etxetik atera eta kamioi batean sartu ninduen. Ordu erdi eskaseko bidaiaren ostean, kamioitik jaitsi eta baserri ikaragarri bat antzeman nuen nire begien aurrean. Beste etxe batera sartu ninduten.

Bertan jarraitzen dut oraindik. Seme-alabak ere izan nituen, amak bezalaxe. Zortzi hain zuzen. Ama izatearen poztasun eta zoriontasun hark, bizitza beste era batera ikustera behartu edo bultzatu ninduen, beste begi batzuekin. Jabetu nintzen bizitzaren eta gizakien krudeltasunaz.

Hori duela hiru urte izan zen. Orain badakit zer den San Martin eguna. Badakit zergatik desagertzen ziren nire neba-arrebak, badakit orain ere zergatik kentzen didaten urtero seme-alabaren bat. Gaur, azkar esnatu naiz, nire semeari azken agurra emateko.

Zazpi egun Martarik gabe

Jon Aiestui

Labana

Begiak itxi zituen. Zabaldu zituenean, labanak bere eskuturraren gainean segitzen zuen.

Ez da ausartu ispiluari begiratzen. Labana eusten zuen eskuak dardar egiten dio. Besteak ere bai. Eskuturretik labana aldendu, pittinka jaso, ezerekin ukitu gabe, eta ipini du konketaren gainean. Orduan bere aurpegia ikusi du ispiluan. Ez dago negarrez. Berak beti uste izan zuen halakoetan negar egiten zela. Baina, antza, nahiko negar eginda dago aurreko hilabeteetan.

Irribarre egin dio ispiluari. Ispilukoa negarrez hasi da.

Goikoa

Goikoak neskaren negarra entzun du komunetik. Hiru negar-zotinka baino ez dira izan. Lehenengoa, minduena eta baxuena. Bigarrena, tupustean. Hirugarrena lantu bezala hasi da eta lantu bezala segitu du, nota bati eutsiaz. Ondoren, beheko neskak dutxari eman dio.

Goikoak badaki zer den dutxari ematea lurtean jantzita egonda. Bi aldiz daki.

Goikoak irratia piztu du. John Lennon eta Paul McCartney irten dira. Batak oihu egiten du eta besteak notari eusten dio.

Bainugelako atean

Neskak labana sartu du jertsearen azpitik. Zintzilik dagoen toalla batean aurpegia garbitu, eta entzuten jarri da. Bi oihartzun iristen dira: atearen beste aldean, norbait plastikozko objektuak apurtzen ari da; goian, berriz, Paul McCartneyren bigarren kontzertuaz ari dira hitz egiten irratan. Neskak zabaldu egin du atea.

Zalapatatik urrundu da, atzerantz begiratu gabe. Bere logelarantz doa. Iritsi da atera. Itxita dago. Ez da zabaltzen. Zarata datorren lekura begiratu, eta handik berehala zarata eten egiten da. Sala isil-isilik geratu da. Orain pausu bat entzun da. Pasillorantz dator.

Neska apartamenduko atera abiatu da presaka. Ez da zabaltzen. Itxita dago. Berriz saiatu da. Ez, oraingoan zabaldu egin da. Bi pausoan kanpoan da.

Goikoak entzun du eskaileretan norbait korrika jaisten. Segituan, apartamenduko atearen daunba entzun du. Ondoren, neskaren saltoak eskaileretan behera.

Lehen eguna Martarik gabe

Goikoak ez du irratia egun osoan ipini. Berandu hartu zuen lo, goiz jaiki da eta berandu doa ohera. Eguerdian, gutunontzia ikustera jaitsi denean, beheko gizona sentitu du bere apartamendutik irteten. Zain geratu zaio, gutunontzia hustu bitartean.

Gizona apur bat jaitsi da eskaileretan. Bet-betan, geratu egin da. Gora egin du eta apartamenduan sartu da berriz.

Goikoak gutunontzia itxi, eta ogia eroatera joan da.

Bigarren eguna Martarik gabe

Goikoak irratia ipini barik eduki du. Irakurtzen eman du egun gehiena, etxeko ate guztiak zabalik zituela. Hogei komiki irakurri ditu, edo bi aldiz hamar. Ez du zaratarik entzun behean. Gizona komunean eta gizona frigorifikoan, besterik ez.

Gizona oheratu denean, bera iratzarrita geratu da.

Hirugarren egunean

Telefonoa joka hasi da beheko apartamenduan. Gizonak hartu egin du. Ahots goxoa du; aita baten bezalako, alaba bati beldurrik ez izateko esaten. Luze egon dira telefonoan. Noizbehinka, gizonak Bai esaten du, edo Noski, edo Laztana. Gero txilioka hasi da.

Arratsaldeko seietan, goikoa leihoan dago jarrita, eta neska ikusi du auto batetik jaisten. Harekin beste bi neska datoz.

Keinua egin dio leihotik. Neskak itzuli egin dio, eskuko hatzak airean pianotuz, eta portaleko atera joan da. Ondoren, goikoak leihoa utzi du, Bach-en musika ipini du goi-fidelitatezko katean, eta kontrabaxuaren notak segitu ditu, airean hatzak pianotuz.

Gero atera joan da entzutera.

Ez esan ezer ere

Moztu du neskak. Kendu paretik. Nire gauzak hartzera nator.

Sesioa egon da. Beste bi neskek ere ozenki hitz egin dute. Halako batean, gizonak bazihola esan, apartamentuan sartu, eta gela bateko atea daunba itxi du.

Lapiko hotsa egon da, zabor poltsak zabaldu dira, kartoia jaitsi dira eskaileretatik.

Laugarren eguna Martarik gabe

Goikoa musika ipinita egon da eguerdira arte. Eguedian, gutunontzia ikustera jaitsi denean, ohartxo bat aurkitu du eskuz izkiriatura.

Beheko apartamendukoa naiz. Barkatu iskanbilak. Gauza bat eskatu behar nizun. Nik helbide berria eduki arte, nire izenean datorren posta galdu egingo da ziur aski, ez galdetu zergatik. Postariari separatzeko eskatu ahal bazenio, benetan estimatuko nizuke. Aurretik mila esker, Marta.

Naiz. Barkatu. Eskatu. Eduki. Galdu. Galdetu. Eskatu. Estimatu.

Ni naiz. Zuk barkatu. Nik eskatu. Nik eduki. Hura galdu. Zuk galdetu. Nik eskatu. Nik estimatu.

Goikoak eskaileretarantz begiratu du eta ogia eroztera joan da.

Larunbata Martarik gabe

Hamaiketan, postariaren zain tinkatu da leihoan. Hamaika eta erdietan, neska agertu da kantoiko izkinan. Goikoak itxoiteko egin dio besoaz. Itxi du leihoa eta gutunontziraino jaitsi da.

Postaria ez da hamabi eta erdiak arte pasa. Ez du arazorik ipini. Ohartxo leitu du, eta bi gutun eman dizkio. Hurrengoan goikoaren ontzian utziko ditu. Horren kargu hartzen du. Gero joan egin da.

Goikoa, bere postala irakurri ondoren, kalera irten da. Kantoiko izkinan ez da inor ageri. Zigarroa iziotu du. Begiratu du atzerantz, eta gizona ikusi du leihoan jarrita. Ikusi duenean berari begira zegoen, eta fatxadako beste leihoei so egin dienean berari begira dago.

Miatu du kalean, kafetegian, dendetan, gutun biak eskuan dituela. Etxera joan da. Leihoa zabaldu du. Beso-ukalondoak kokatu ditu markoan. Bi gizon bi leihotik kalera begira.

Igandea

Gutunak ez daude beraren logelan. Leihoa hutsik dago. Goikoa kalera irten da, gizona etxetik irteten sentitu ondoren. Igandea da kaleetan. Ez dabil inor. Zaila da gizonari segika egitea. Zapaten oihartzuna jarraitu behar du, kalerik kantoi. Halako batean, zapaten hotsa geratu egin da.

Bitartean

Neskak bebarruko atea zabaldu du. Bigarren solairuraino igo da, eta hirugarrenera segitu du. Goikoaren atean jo du. Birritan jotzen du. Hiru bider.

Oharra pasa dio ate azpitik eta joan doa.

Itxoin hemen bihar 15:00tan. Ordu horretan nire gizona etxetik irtengo da, nirekin kafe bat hartzera metro estaziotik gertu.

Bueltatu da goikoa etxera

Bueltatu da goikoa etxera. Atea ireki orduko, oharrarekin egin du trikitx.

Itxoin hemen bihar 15:00tan. Itxoin. Ordu. Gizon. Etxe. Irten. 'Ni' hitza gehiago agertzen da, besteak baino.

Nire. Eta Nirekin.

Zazpi egun Martarik gabe

Goiz esnatu da goikoa. Arratsaldeko hirurak izateko bost minutu falta direla, telefonoa joka hasi da behean. Txilioak entzun dira eta hainbat hitz ere bai. Behekoak apartamendutik irten du.

Hiruretan, atean jo dute. Marta da.

Posta jasotzera dator.

Goikoak gutun biak eman dizkio. Ongi zaude?, galdetu dio, posta emanez bat. Bai, erantzun du Martak. Dena ongi doa, lagunei esker. Ez da erraza, baina ongi doa. Eskerrik asko galdetzeagatik.

Askotan ematen zenion dutxari jantzirik, esan dio goikoak. Nik ere badakit zer den hori.

Neskak irribarre egin du. Isilik geratu da, lekuan zutik. Gero esan du:

Pierre edozein astakeria egiteko gauza da. Edaten duenean eta ez duenean edaten. Kontuz ibili.

Goikoa ere zutik geratu da.

Ez da ausartuko agure bat jotzen, esan du lurrera begira.

Martak gutun biak erakutsi ditu airean, lurrera begiratzuz. Ondoren esan du: Joan egin behar dut. Hurrengo posta gaur zortzi emango bazenit, estimatuko nizuke. Estazioko kafetegian gera gintezke, ordu honetan. Gero ez dut uste karta gehiago etorriko denik. Eskerrik asko. Agur.

Gero joan doa.

Estazioko kafetegian

Marta iritsi denerako, goikoa kafea hartuta dago. Zer moduz astea? Ondo. Gutunak eman dizkio. Hiru dira, besterik ez. Diru kontuak, hirurak.

Goikoak kafe batera gonbidatu du. Pierri buruz hitz egiten dute, erruaz, erruduntasunaz, bizitza aldatzeaz, gaztetasunaz, edadeaz eta arnasa hartzeaz. Gero Martak esan du joan beharra duela. Esan du hurrengo igandean beste kafe bat har lezaketela, gura izanez gero.

Ez dut beste egitekorik, esan du goikoak.

Marta joan egin da. Goikoak kafe biak ordaindu ditu. Ondoren, beste kafe bat ekartzeko eskatu dio zerbitzariari.